



JOSE INAZIO ETXEBERRIA

Mendi-gañetik

MENDI-GAÑETIK

AUSPOA LIBURUTEGIA

105

COLECCION AUSPOA

**Administración: Plaza de Santa María, 2 — Tolosa
(Gulpúzcoa-España) Tel. 661612**

**Dirección: Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J. Colegio de
S. Ignacio. Ategorrieta. — San Sebastián.**

ORDAINDU BEARRAK:

**Urte betekoa: 420 pezeta
Ongilleak: 700 »**

**Atzerrian: 560 pezeta
Ale bakarra: 50 »**

JOSE INAZIO ETXEBERRIA

MENDI-GAÑETIK

AUSPOA LIBURUTEGIA

1971

© Auspoa Liburutegia
Tolosa (Guipúzcoa)

Depósito Legal. S. S. 180/71
IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Marzo 1971

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Nere bizitzari	11
Bertso Berriak soldaduaren bizitzaren gainian jarriyak	20
Frantzesaren gerra onduan	29
Urrestil'ko Mixioa	37
Meza-denborako pentsakizunak	46
Anaiak alkar iltzen	53
Eriotza	55
Bakoitzari bere irabazia	57
Kristo zerura	59
Sortzez garbiari	65
Erne gabiltzan	69
Bakoitzari berea	72
Jesusen Biotzari	76
Gorputza ta anima	78
Salbazioko bidea	83
Pekatuaren zorra	89
Itxasoa	93
Egi batzuek	97
Eskerrak	101
Arretaz bizi gaitezen	105
Aurrerapena	112

Anima salbatzeko	117
Bide billa	120
Gaurko mundua	127
Animen eguna	130
Kristau ikasbidea	135
Kizkitza'ko Amari	142
Gazte andariñak	147
Azken eguna	150
Fedea oztuta	156
Bitatik bat	161

ITZAURREA

Bertso-liburu onen egillea, Jose Inazio Etxeberria Mendiola deritza.

1894 urteko Urriaren 8'garren egunean eta Urrestilla'ko Otalastegi baserrian jaio zan, eta bertan bizi da.

Otalastegi baserri ori mendi-mendian dago. Orrenbesterekin esana dago *Mendi-gañetik* izena nundik eta nola dator-kion liburu oni.

Jose Inazio Etxeberria au aspaldiko ezaguna det. Orain amabost bat urte ezagutu nuan. Ain zuzen arbi ereiten ari zan. Ta gaztetan bere soldauzkari jarri zizkion bertsoen papera eman zidan.

Orain urte t'erdi beste bisita bat egin nion. Aldi ontan papera ez bañan bertsoz betetako kuaderno bat eman zidan. Ta kuaderno ori liburu biurtu degu. Ori besterik ez da *Auspoa*'ren ale berri au.

Etxeberria'ren bizitzaren berri ez de-

gu emango. Egiteko ori berak bete du, bertso batzuk jarririk. Sail ori danetan azkena sortua da, bañan liburu onetan aurrena jarri degu.

Bertso-sail bat edo beste kendu bear izan degu, bestela liburu au lodiegi egingo baitzan. Ta inprentara baño len, an da emen ikutu batzuk egin dizkie egilleak bertsoari, guziak bere gusto-gustora jar-tzearren.

Bertso batean onela dio:

Bertsuak ateratzen
daukat biziua,
bakarrik naizeneko
gonbersaziua...

Obe genduke ori beste biziorik ez ba-genduke danok ere. Ta gonbersazio orta-ko itzak, liburu ontako bertsoak alegia, naiz-ta bakardadean eta mendi gañean esanak izan, orain Euskalerra guziak entzungo al ditu! Ez genduke besterik nai.

A. Z.

NERE BIZITZARI

1/ Bertso berri batzuek
ipintzeko era:
nere bizitza zer dan
gutxi gora-bera;
laster bidietatik
egiñaz aukera,
alakoren batian
zuzenduko gera.

2/ Ezagutu nituen
aitona-amonak,
panparrei aundi gabe
munduan izanak,
liñuakiñ jantziaz
galtzak eta gonak;
izkutatu zituen
kargua zeukanak.

3/ Aien alabagatik
ez neri galdetu,
akordatzeko modun
ez nun ezagutu;
ezagutu gaberik
eziñak maitatu
nere bizitzan zenbat
ote nau penatu!

4/ Aiek ziran lekuan
ni gelditu nintzan,
Jainkuak nai zun arte
munduko bizitzan;
beraren aginduak
errespeta gintzan,
azkeneko egunian
ontzat artu gaitzan.

5/ Bi anai ta arreba
giñan aitarekiñ;
bide ortan aurrera
biar diot ekiñ,
konpianza arturik
Jaungoikuarekiñ,
zeruan izateko
betiko berekiñ.

6/ Esku baten atxurra,
bestian segia,
oiekin sortu biar
jateko ogia;
zerbait sortu zitzaigun,
esanik egia,
gure aita etzan izan
bururik gabia.

7/ Denpora juanagatik
igueltxu lanak,
berriak arturikan
eziñ egiñ danak;
talenturikan ez du
ondra eta famak,
ez badio laguntzen
sortu zuen amak.

8/ Bizi izatia zer dan
txikitan asita
denboraren motiboz
nago ikasita;
gauza ondo artzen da
sarri ikusita,
nik gordiak baditut
memorin josita.

9/ Onetan geundelarik
denbora aurrera,
soldaduzka zetorkit
lenengo karrera:
Ez nauk ni allegatu,
ez, leku txarrera,
maleta kargatzeko
nere bizkarrera!

10/ Andikan beriala
suertian jokatu,
katigu irtetia
bai neri tokatu;
nik eziñ nezakela
kuota pagatu,
errege serbitzera
nintzan presentatu.

11/ Soldaduzkan pasata
iru urte osuak,
ez nitun itxeratu
talentu jasua;
neri ematearren
janari goxuak,
erruki ematen ziran
arreba gaixuak.

12/ Sei urte lenagotik
bazan nere anaia,
bera tokatutzen zan
etxerako gaia;
neri sortuagatik
zerbait egiñ naia,
umezurtzen gisara
banitzan ia-ia.

- 13/ Ogei ta zortzi urte
opizio gabe,
diruaren paltan da
nekearen jabe;
zerbait ikasitzia
ez ote nuke obe,
ni etxetik irtetia
pena artuko debe.
- 14/ Noizbait askatu nuen
nedukan lotura
etxetik irteteko
nai nuen lekura;
orduko aprendizak
zeukaten oitura:
jornalik gabe lana,
jan beren kontura.
- 15/ Bitori'ra jun nintzan
zerbait ikastera,
arotzaren izenez
buelatu atzera;
emen juaten nitzan
batetik bestera,
gauza batzuk egin da
besteak jostera.

- 16/ Onela nebillela
ill zan nere anaya;
ezkondua baintzan,
esan biet egiya,
aitak eta arrebak
zutela premiya,
etziraden gelditu
famili alaya.
- 17/ Kaleko etxetikan
baserri zarrera,
irteraren antzeko
genduen sarrera;
euzkiaren galdata
kanpo-biarrera,
izerdia irtenaz
tantaka lurrera.
- 18/ Kosetxa ereiten nun
oitura zarrian,
probetxu gutxi artuz
soro-bazterrian,
otea ta sasia
ikusiz aurrian,
bertso batzuk kantatuz
unure ederrian.

19/ Bizi-modu berriya
nola konprenditu,
erozein modutara
nai dunak aditu,
kuidarotan dagonak
nola pretenditu,
errespetuarekiñ
oraiñ atenditu.

20/ Bertso baten balioz
andrea erosita,
itzikan egiñ gabe
tratua asita:
papeltxo baten bidez
tintaz idatzita,
pasako zan lekuan
lurrera jausita.

21/ Bertsolari izatia
alegre munduan,
kariñoz ikusirik
alako moduan;
estimatzekua da
beraren onduan,
beti ala izan bagiña
maiteko ninduan.

22/ Aita zarturik ill zan
bizitza kostata,
berrogei ta lau urte
alargun pasata;
iru aingeru bazitun
zerura jasota,
munduan pasatzen da
ainbeste kaso ta.

23/ Guk zazpi seme-alaba
emanik Jainkuak,
ondo ezi, jan da jantzi
baziran naikuak;
ala esaten dute
probatutakuak;
gure alegrantziak
ez, ba, betikuak.

24/ Orain nola dagoen
nere emaztia:
ez det espero geio
zutik ikustia;
enkojitua dauka
gorputza guztia,
azken urtetarako
egoera tristia.

25/ Gure bizitza izan da
lurraren gaiñian,
zartua banaiz ere
beti eziñian;
uste aundiak nitun
gazte nitzanian,
enganiyua dala
nago jakiñian.

26/ Nere bertso berriyak
ara errematian,
oker baldiñ bagiñan
zuzendu gaitian,
konpormatu gaitezen
degun suertian;
zerun sartuko al gera
egunen batian!

BERTSO BERRIAK

SOLDADUAREN BIZITZAREN GAIÑIAN JARRIYAK

Badakigu, beraz, izenburua irakurtzearekin, bertso auetako gaia zer dan. Jose Etxeberria'ren lenengo jarri-aldia da.

Kuartelera baño len, suertea Azpeitian bota zuten. Urrestildarraia ala dago-kie. Etxeruntz bueltan zetorrela, bere artean bertso au pentsatu zuan:

Milla beatzireun da
amabostgarrena,
Abenduak oi ta sei
Eguarri-bigarrena,
barrenian senti det
makiña bat pena:
zer izan ote diteken
orren ondorena.

Gazteiz'ko zaldizkoetan serbitu zuan. Bertsoak, bertako moldiztegi batean argitarazi zituan. Bañan paperak etzitian saldu; paper-pilla etxean gorde zuan, da lagunai da abar andik ematen zien. Guk ere bere eskutik jaso genduan. Moldiztegi-izenik ez du paper onek.

1/ Mille pasa ta bederatzireun
amaseigarren urtian,
Eneruaren amazpiyan,
artsaldeko ordu batian,
goguan dauket nere sarrera
kuarteleko atian,
bildotxen gisa berrogei ta lau
donostiarren artian. (1)

2/ Gure bizitza publikatzeko
artu det pensamentuba,
Zeruko Aita, argi zadazu
nere entendimentuba,
biotz barrengo egi aubekiñ
luzatu zadan kantuba,
Euskalerriko anai maitiak
jarri dezaten kontuba.

3/ Etxeberria apilidua,
Jose darukat izena,
mundu guztiak ezagutzen nau
azpeitiarra naizena,
reljioz naiz katolikua,
itza ala det emana;
au da lenbizi sala eder baten
preguntatutzen zutena.

(1) Ez Donostia'n jaiok, Donostia'n bildu zira-
rak baizik. Ta andik Bitori'ra beeka joan omen zi-
ran, bildotx-orru guziak egiñaz. Orregatik dio "bil-
dotxen gisa".

- 4/ Onen ondoren etorri ziran
aita ta amaren nonbriak,
estadu onian aurkitu giñan
izan bagiña sobriak;
ofiziyua galdetzen zuten
ikusirikan pobriak,
egiya pranko esanak gera
euskaldun biotz nobliak.
- 5/ Inporme danak onla emanik
salatik giñan atera,
arrantxorako ordua zan da
patata biña jatera;
isilenzio jo zutenian
agindu zuten lotara,
iru tablaren gaiñian zegon
lastozko koltxonetara.
- 6/ Gauba nolabait pasatu eta
gero urrengo eguna,
lendabiziko kafia artu,
oraiñ egiten deguna;
afeitatu ta illia moztu,
oñak garbitu urruna,
onen ondoren sartu ginduzten
kuarto baten barruna.

7/ Lenago iñoiz aditu izan da
kuarto artan oi dana,
ez da gezurra medikua ta
fratikantia zeudena;
sanidadia ederra degu
gure Jainkuak emana,
geure burua dago esaten
ontzat eman gaituztena.

8/ Kuarto artatik atera eta
eman ziguten ordena,
soñeko erropaz kanbiatzeko
al genduen azkarrena;
nola presaka egiñ biar dan
aiek agintzen dutena,
batak bestia jantzi eziñik
istillua zan danena.

9/ Linpiezara bajatu eta
arriturikan begira,
mingaiñ oneko amaen semiak
mundu onetan badira!
Jangoikua ta Ama Birjiña,
santu ta santak segira,
zelako ditxa egunen baten
oraziyuak balira.

10/ Esku batian zepillua ta
bestian berriz armaza, (2)
apenas daukan zaldi gaiztuak
kintuan mende ametsa;
ondo eginda bildurrikan ez,
gaizki eginda torpeza,
agintariak bisten badira
utsegitia erreza.

11/ Errebistia pasatzen dute
buruti asita oñera,
mantxarik iñun ikusi ezkeru
kastigu ederrak gañera;
baldiñ mutillak ematen badu
sentimentuta piñera,
pazientziyan ez du egiñgo
mogimenturik iñora.

12/ Iñoiz ô berriz egon izan naiz
nere artian pensatzen
diziplina au bear bezela
ez dala errez kunplitzen;
ikusirikan neu ta lagunak
kulparik gabe sufritzen,
soldaduaren pazientziyan
ez da kaburik billatzen.

(2) armaza: aziendak garbitzeko tresna bat;
arraskatuaz erabiltzen da; burnizkoa da.

13/ Barrunda degu bein da berretan
kuartel eta kanpuan:
mogimenturik egiten badu
formazioko puntuan,
sarjentôn batek emango dio
belarriyaren onduan,
eta gañera arreatzen du
iduki dezan goguan.

14/ Aubek guztiyak ikusi eta
guazen estruziora:
bizkarreko otzik ez dezu izango
torpe samarra bazera;
gure bildurra erakuslia
allegatzian parera,
ain da aundiya trantzi artan guk
pasatzen degun zarrera. (3)

15/ Batian oñez, bestian zaldiz,
agintzen duten erara,
amaika bider irteten degu
estruzioko kanpora;
gure ibillera miserabliak
ezin giñ aizke kontura,
bastante ai gera zer dan probatzen
miliziako denpora.

(3) zarrera: zarrada.

16/ Anparo aundiyak izate'itugu
zaldi gaiñian geurekiñ,
defensarako baliatuaz
geren mienbro danakiñ:
armamentua alde bietatik
guardatuaz eurekiñ,
oñak zaldiya mogitzeko ta
manejatu esku batekiñ.

17/ Diran bezela jarri nai ditut
asi ezkerro izketan,
ez diran gauzak publikatua
egon ez nadiñ kezketan;
penazko lege ikaragarri
justizioso oietan
paltatu gabe, saia gaitezen
tokatzen zaigun gaietan.

18/ Berriz berriro astera nua
gure bizitza kantatzen,
ibillera aubek gogoratuta
ez naizelako aspertzen;
gosia eta luaren palta
ez da beñere paltatzen,
beti ai gera pasatutako
denpora aubek kontatzen.

- 19/ Diana jotzian oia eginda
lista pasata kafia,
estimatzen da ez oso gutxi
ura artzeko pakia;
linpiezara bajatzen gera,
au guztia da nekia,
akabatzeko betarik gabe
estruzioko tokiâ.
- 20/ Estruziotik etorri eta
arrantxorako pormatu,
errebisatzen asten dirade
paltarik iñun topatu;
zikiñik iñor ikusi ezkerro
kalamidadez tratatu,
eurek dituzten disgusto danak
indibiduak pagatu.
- 21/ Amaikak eta laurdena dago
arrantxorako jarriya,
gure agiñak bâkite ondo
tenple beruen berriya;
jatun mansorik barrunda ezkerro
askok oi duten gloriya:
aren partiak azkar tragatu,
geroko gorde ogiya.

- 22/ Amabietan danok pensura
errespeto aundi batian,
an esate'ute zer egiñ biar dan
gero artsalde-partian:
«Errebistia jarri biar da
oraiñ istante batian,
tenientiak pasatuko du
iru ta erdiyak aldian.»
- 23/ Grasa ta pasta, tierra ta betun,
jostorratza ariyarekiñ
nun diran kontu egiñ dezake,
ez baldiñ baitu berekiñ;
burni ta ekipo zikiñak eta
sabria nun dan ez jakiñ,
soldaua askotan aurkitutzen da
estuason aubek danakiñ.
- 24/ Modu onetan supritzen degu
miliziako denpora,
amaika onlako pasatutzeko
jaio giñan gu mundura;
geren erriyan sorteatu ta
bota ginduzten onera,
Españiya'ren depensarako,
gure anaiekiñ batera;
San Pedrok danok sartu gaitzala
zeruko erreñuetara.

FRANTZESAREN GERRA ONDUAN

1/ Milla beatzi eun urte
eta amalauan
aleman gerreruak
Beljika'ra jua;
Españi'ra pestia
sortu zan orduan,
obreruen egintza
ikusi genduan:
orain zortzi orduan,
lenago amar uan,
alperren moduan
geroz beraguan;
gubernamentu txarrak
zer ondoren duan.

2/ Beljika'tik eman zun
lenengo pausua,
Frantzi'ra izatiarren
bide erosua;
libre etzegolako
aruntza pasua,
dana puskatu zuten
nazio osua;
orduko kasua
oso zan pisua;
jarri zun besua
koleran jasua, (1)
Kaiser etzan azaldu
gizon bromosua.

(1) Kaiser, besoa gora jasoa zuala ageri omen
zan erretratorik geienetan.

3/ Mundu guziko jainko
bera zan ustian,
esperantzia zeukan
gerrara astian;
bildurra sartu zuen
Europa guztian:
jarriko ginduzela
estadu tristian;
beriak istian
su ta gar bestian;
ori ikastian
naziok nastian;
igesari eman zion
berak ikustian.

4/ Ordutik indartu zan
España'n gaitza,
geroztik sendagairik
gabe gabiltza;
norberetzat mediku
bagera bakoitza,
azkenengo orduan
bakarrik apaiza;
baztertu otoitza,
lasaitu bizitza,
obra bezela itza,
jente moldakaitza;
bide ortatik zear
alperrik gabiltza.

5/ Españi'ko pezeta
munduko erregiña,
ori zaitzen ein gendun
guk alegiña;
geroztikan izan du
nora aldegiña,
Europa'n sortu zala
gerrarako griña;
frantzesaren miña:
«Ni banauk i aña!»;
ustia bai baña
alemanak gaiña,
ingelesak moztu ez
balio eskiña.

6/ Gobiernuan sartu zan
zenbait bizioso,
nork bere jornalari
ein zion kaso:
baju zedukatela
doblatura jaso;
bakoitzak bere etxera
bidiak eroso;
mendi eta baso,
orrenbeste pauso,
anka eta beso
nekaturik oso;
orain danok domatu
gaituzte kurioso.

7/ La Cierva gobernun
zala presidente,
erregek izan zuen
milla sesiente; (2)
partidu asko zitun
onek soziente; (3)
gobernu-aldaketak
bera beti tente;
bakiña bat jente
aurka baliente:
«Emendik joan zaite!»
jarriaz presente;
aldegiñ egiñ zuen
txit obediente. (4)

8/ Sevilla'n egiñ zuten
malizizko lana,
izkutuan gordiaz
biar zan jana;
keja sartu zuten
gobernuagana,
ark ere jakiñ zezan
an egin zutena;
eman zun ordena
al zan azkarrena;
aren aztarrena
izkutu barrena;
kanpora etzan azaldu
nor zan aurrena.

(2) sesiente: sesio-zale; erregearen kontra atera ziran berak kargutan ipiñitako gizonak.

(3) soziente: sozio; partidu askotako ministroekin osatu gobernua.

9/ Oi ta lau milloi dira
kontatzen diranak
Españi'ko nazio
ontan personak;
beratzi illabetian
oientzat sostenak,
deposito oietan
gordeta zeudenak;
oien ondorenak
etziran onenak:
bakiña bat amak
bazituzten lanak
beren familietan
sortutzen janak.

10/ Gauza galestitzia
zala prezisua,
negozientiak alkarri
pasa abisua;
ezin zitekela ase
nazio osua,
dirua duanantzat
janari goxua;
jornal eskasûa
kintzenan jasua,
pobrien pausua
beti penosua;
diru-gabia ez da
jarri galosua.

(4) Bertso au geroztik konpondua dago; alegia, erregea bialdu ta republika jarri zutenean.

11/ Nagusi diradenak
ainbeste batian,
errenteruak berriz
triste atian;
zer izango ote zan
barrena juatian,
leno zeudela aiek
errenta betian?
Gora egitian
oientzat kaltian;
kosetxen paltian
kontura gaitian
zer konsuelorekin
egon ditekian.

12/ «Errentarik ez diot
nik azi iñori»
jauntxoren batek esan
leikit gaur neri;
nik eziñ ezer esan
ez baita agiri;
zailla da kalkulatzen
zein dan juzkalari;
zu libre zeori,
itxurak diruri;
zein dan pekatari
esango'izut zeuri:
zer kontu jotzen dion
zure maizterrari.

13/ Len amairu pezeta
anega garian,
orain dago bost duro
eta erdian;
zure maizterra berriz
kosetxa urrian,
palta irten bazaio
zûtzako neurrian,
ordena jarrian,
premi igarrian,
oîn osagarrian
gari ekarrian,
ona nun arkitzen dan
errenta berrian.

14/ Egiak esplikatzen
gustora asita,
aurrera eziñ jarraitu
ain da itxusi ta;
asko eziñ pagatu
gutxi irabazita,
negar egiñ diteke
auek ikusita;
garezti erosita,
zorrak nagusi ta,
indarrak jausita,
eziñ igesi ta,
kartzelara birian
grillutan josita.

15/ Bertsuak ateratzen
daukat biziua,
bakarrik naizeneko
gonbersaziua;
utsian jarririkan
bere preziua,
aberastu nai nuke
gure naziua;
au da soziua,
jarriz aziua,
dun produziua,
dan partiziua,
kategori bajuen
publikaziua. (5)

(5) Orri batean, sail ontako zazpi bertso, orden ontan: 15, 1, 2, 3, 4, 8 ta 9'garrena. Aldaketarik nabarmenena, 9'garrena bertsoa:

Oge ta lau milloi ziran kontatzen ziranak,
beratzi illabetian oientzat sostenak,
deposito oietan gordeta zeudenak;
zer izango ote ziran oien ondorenak?
Bakiña bat amak
bazituzten lanak;
dirua zeukanak
gauzarik onenak;
gero ere jango dik — modua duenak.

URRESTIL'KO MIXIOA

- 1/ Jaungoikua da gauza guztiyen
asiera muga gabia,
orregatikan aitortzen zaitut
gauza guztiyen jabia;
bertso batzuek ateratzeko
nai nuke abilidadia,
Zeruko Ama, eman zadazu
bear dan fakultadia.

- 2/ Mille bederatzi eun ogei ta
amabigarren urtian,
Ebaren ume desterratuak
Gipuzkoa'ko partian
animarentzat ondasun billa
Urrustill'ko erri maitian,
beste egintzak osoro utzita
zintzo ibilli gaitian.

- 3/ Otsaillaren ogei eta bat
señalamente eguna,
zorioneko mixio orren
asiera izan deguna;
gutziz ederki agertzen dute
gerontzat illun zaiguna:
beste munduan nola kobratu
irabaziko deguna.

4/ Fede santuko zimendu-arria
Eleizak dauka berekin,
dudarik gabe siñistutzeko
motibua bada zerekin;
Ama Eleiza Santa Erroma'kua,
beti gabiltzan zurekin,
Luzifer'ekin pasatu zana
gerta ez dediñ gurekin.

5/ Fede Santua zintzo gordetzen
ez dakit ondo dakigun,
anima gaixo elbarritua
arkitzen bada txit bigun;
zer erremedio-klasetatikan
komeni ote zaizkigun,
Jaungoikuakin konsultatutzen
egon biar da gau ta egun.

6/ Pekatua da, kristau maitiak,
gauza ikaragarriya,
konparazioz adierazteko
ezin det artu neurriya;
gure Jainkuak gorroto dion
animen kaltegarriya,
garbitasuna zikintzen duen
erdoi txit nazkagarriya.

- 7/ Pekataria Jaungoikuari
etzaio egiten mendeko,
iruitzen zaigu geok generala
jaun eta jabe munduko;
griña makurra geurekin degu
ta ez digu iñork kenduko,
diabruakin alperrik gabiltz,
txarrak ez gaitu onduko.
- 8/ Diabruaren engañiyua
esango'izutet itz bitan,
mixiolariai aditu nien,
ez dakit ondo dakitan:
arrantzalien amuba da-ta
jakiya arraien begitan,
pekatariya orla erortzen da
tentaziyuan alditan.
- 9/ Blasfemiaren kontuan ere
ipiñi dute itzala,
esan digute juan dan urtian
gizon bat ontan il zala:
eleiza aurrian blasfematurik
tximista jota bezela;
kondenatuben izkuntz ontatik
Jaunak aparta gaitzala.

10/ Eriotza da eskeleto bat
geure gorputzen ezurra,
ontan pensatzen egondu naiz ba,
ez dala diot gezurra;
animaren da aragiaren
erdiyan dagon maltzurra,
dirudiyela elbi tragatzen
gosiak dagon zakurra.

11/ Jarri gaitezen egan dabillen
elbitxo baten pensatzen,
zakurrak kolpe egitiâkin
nola dan ezkutatutzen;
era berian kristabak ere
munduban dira kastatzen,
parra ta burlaz eriotzakin
ez da ibiltzeko jostatzen.

12/ Eriotza ortan badago beste
gauza bat arrigarriya:
buru gañian omen daukagu
ezpata bana jarriya;
bera erortzian emate'omen du
zastada ikaragarriya,
gorputza illik alde batera,
animak bizi berriya.

13/ Bizitza orrek iraungo digu
eternidade guzian,
zorionekua arkitzen dana
Jaungoikuaren grazian;
kontrara berriz baldin badago
diabrubaren pozoian,
alper-alperrik damu izango du
ondu gabia sasoian.

14/ Jaungoikuaren justiziya da
ezin geiago zuzena,
oso-osorik emango dio
irabazirik daukana;
mundu onetan bide txarretik
ibilli bada gizona,
beste munduban nola billatu
orren animak zoriona?

15/ Ispillu orrek emango dio
une baten da bestian
inpernurikan samingarrina
eternidade guztian;
su-leize baten egon biarra
kondenatuben pestian;
penagarria egongo da an
orren estadu tristian.

16/ Esan digute: eun milloi urte
uraren tanto banetan,
onen onduan ez dirala ezer
itxasuan diran danetan;
tantoka atera agortu arte
ta azkena biyek batetan,
Kain pozikan dantzan legoke
arreglamenteu onetan.

17/ Nolabait ere gure animak
arkitzen ziran gaixorik,
erriko jaunen erremedioz
sendatu gera osorik;
medikuberi dei egin eta
kasik etzegon pulsorik,
iya-ya eziñ zeikian eman
zeru-bidian pausorik.

18/ Sendagaia da konfesiya
bere kondiziyuakin,
esamiña ta damutasuna
propositu onarekin,
okasiotik apartatzeko
geure alegiñarekin;
ori egiten ez degun arte
gaitza egongo da gurekin.

- 19/ Gaitz orretatik apartaturik
dagon anima debilla,
arreta aundiz ibilli bear du
erremediyo onen billa;
otoitza degu bire bakarra
debozios da umilla,
ori utzita ibiltzen dana
ez da irtengo abilla.
- 20/ Jaungoikuaren agindubetan
pasatuko naiz txit arin,
kartillan dagon gauza batekin
luzaro egon ez nadin:
lendabiziko Bera ezagutu
eta amatu danen gañî,
ta juramentu gezurrezkorik
iñola ere ez egin.
- 21/ Meza osua entzun biar du
kristabak jai-egunian,
bi ordu t'erdi igaro gabe
premi gabeko lanian;
aita ta ama ondo onratu,
au dago laugarrenian,
bigarren Jainko bezela artuta
txit borondate onian.

22/ Agindu onetan kargatzen gera
geienen bat gurasuak,
ondo neurtzen ez ditugulako
geren umien pausuak;
diabruak ditu gai onetan
indar aundiko besuak,
gurasuen paltaz galtzen diranak
ez dira izango gozuak.

23/ Iñori gaitzik ez egitia
gauza ederra benetan,
izan gaitezen garbik deseoz,
pensamentu, itz ta obretan,
iñori ezer ez kendutzia
ta idukitzia beretan;
lagun urkoai kalte egiñak
sartzen dirade orretan.

24/ Testimonio palsuak edo
agerkai gezurrezkuak,
projimuâtik murmuratze ta
arrazoi gabe juzkuak,
sekreto dauden paltak agertzen
naiz izan egiazkuak,
projimuari pama kentziak
ez dirade bidezkuak.

25/ Besteren gauzen zaletasun da
deseo era gabiak
debekatuta jarririk dauzka
Jaungoikuaren begiak;
al baldin bada bueltatutzia
bakoitzari norberiak;
era onetan erakusten du
salbazioko biriak.

26/ Esan digute projimuari
barkatu biar zaiola,
Jesus txit onak kurutzetikan
Aitari eskatu bezela,
akordatubaz bere onduan
gauza ezerezak gerala;
Jaungoikuaren erreinuetan
ez da sartuko bestela.

27/ Barkaziyua eskatzen diot
arren gure Jainkuari,
bear bezela segi ezpadiot
mixiolari jaunari;
baita're beste aditzallietan
zan utsegite danari,
millaka esker mixiolari ta
gure parroko jaunari. (1)

Otalastegi

(1) *Argia*, 1932/III/6 ta 27, ta 1932/IV/3.

MEZA-DENBORAKO PENTSAKIZUNAK

- 1/ Pekatariak gera
otoitz bearrian:
inparnuko etsaiak
dabiltz indarrarian;
eguna pasa biar
aien bildurrian,
Jesus ona gordiaz
biotz samurrian.

- 2/ Goizian goizetikan
ein biar otoitza:
Luziper da lagunak
indartsu dabiltza,
guri erantsi nairik
pekatuen gaitza;
deskuidatuko gera
erne ez bagabiltza.

- 3/ Gurutze santuaren
señaliagatik
Kristoren soldaduak
armatu gogotik;
ez gaitu menderauko
saiatuagatik,
Jesusek eman zuen
bizia gugatik.

4/ Mezako gorabera
eziñ entenditu,
lenago ez degulako
ongi atenditu;
Jesukristoren penak
adierazten ditu,
errukituko giñan
jakiñ bagenitu.

5/ Pekatari gerala
aurrena aitortuz
itzegite, gogamen
eta pensamentuz,
Birjiña ta santuak
batera juntatuz,
erregu eske gatoz
bularra golpatuz.

6/ Jauna baldiñ badator
gu gauden tokira,
errukian eskiak
an izango dira,
Espiritu Santuri
jarririk begira,
eraman gaitzabela
zeruko glorira.

7/ Jaunaren aserria
aplakatziarren,
pekatarien billa
Semia zetorren;
iru personatetik
auxen da bigarren,
gogoz entzun deiogun
ze berri dakarren.

8/ Berri onan zatitik
degu aleluia,
Jesukristoren itza
dala alegia,
gizona salbatzeko
dakarren legia;
eskeintzen dizkiogu
ardua ta ogia.

9/ Ona zuretzat, Jauna,
gure ezereza,
borondate onian
estimatu beza;
ondo konserbatzeko
Kristoren eleiza,
guztion erreguak
arren entzun bitza.

10/ Ostegun Santu egunez
eiñik aparia,
altaran eskeiñtzeko
bere oparia;
gorputza ta odola
danon janaria,
Jainko Seme bizia
ta ogi-iruria.

11/ Ona nun altxatzen dan
Kristo gurutzian,
lantzak zulatutzeko
bere saietsian;
odola eta ura
zeuzkan biotzian,
illotzik sartu zuten
Jesus arkaitzian.

12/ Gorputza an utzita
jetxi zan linbora,
justuk zeruratzeko
eldu da denbora;
gorputzak irten ziran
lurretik kanpora,
Kristok eraman zitun
Aitaren ondora.

13/ Otoitz egiñ dezagun
gaiztuak ontzeko,
danok izan gaitzen
alkarren antzeko;
zeruko erreinua
betor guretzako,
Kristok guri bezela
zorrak barkatzeko.

14/ Jainkuaren bildotxa
apal da umilla,
mundura etorrita
pekatari billa,
gizona salbatzeko
gurutzian illa,
bere irabazia
balia dedilla.

15/ Mundu onetan iñor
ezin leike ase,
Kristoren apartiaz
egarri ta gose,
mai santura juntatuz
berak bezelaxe,
lagun ditugularik
Maria ta Jose.

16/ Geok eskeiñitako
ogian zatitik,
jaten eman nai digu
Jaungoiko bizitik;
ori ondo artuaz
goizian goizetik,
aberastu diteke
Jaunaren grazitik.

17/ Aberastasun ori
baliatutzeko,
legiak baditugu
neurriak artzeko;
arrisku aundiak daude
biria okertzeko,
polizik erne dabiltz
inparnun sartzeko.

18/ Arretaz egon biar da
Mezako partian,
apaizak onespena
emate'un artian;
utsegiterik bada
bien bitartian,
belauniko jarrita
damutu gaitian.

19/ Onela bukaturik
bere oroimena,
eskerrak emateko
degu ondorena;
mesede eskatzia
degu guk onena,
sinisturikan antxen
Kristo dagoena.

20/ Nun-nai izanda ere
Jesus ona lagun,
bizi geran artian
estima dezagun;
bere Ama maitia
egiñaz ezagun,
zeruko erreinuetan
ikusit ditzagun.

ANAIK ALKAR ILTZEN

- 1/ Bi susto arrigarri
aurtengo urtian,
irugarrena ere
etzan apartian:
Lutero ta Kennedy
aotan artian,
anaiak alkar iltzen
Gipuzko-partian.

- 2/ Alkar maite izateko
Jaunak aginduta,
oraingo gertaerakiñ
gaude samiñduta;
sinismenaren paltaz
otzak suminduta,
senidiak alkarri
bizia kenduta.

- 3/ Aurrerapena dala
esan eta gero,
mundun bizi izaten
ez da jarri giro;
aurrerapen aundia
iduki ezkerro,
alkar iltziagatik
orrenbeste tiro.

4/ Gizona iltziagatik
pistola erosita,
nere iritziz danez
zinen ikusita;
ortik jartzen dirade
gaizki ikasita,
diabruaren pletxaz
biotza josita.

5/ Politika-izenez
orain dagon miña:
begi-bista ona ta
ikusit eziña;
gaztetan ikasia
Kristoren dotriña,
bañan ezin piatu
zakurrakiñ aiña.

6/ Eziñ neike jarraitu
lantegi onetan,
gogorikan ez daukat,
triste naiz benetan;
ikusirik mundua
tamaña onetan,
kristaua nola ez da
egongo penetan?

E R I O T Z A

- 1/ Pekatu-pian izanagatik
mundu onetara sortua,
esperantza bat ona badegu
bataiotikan artua:
il ondorian izatearren
zeruetara sartua,
Eleiza Amak erantsi zigun
Jesukristoren txertua.

- 2/ Buru aldetik gurutzia ta
lurrezko manta gañian,
otzaren otzez gogorturikan,
jantzi illuna soñian,
anima nun dun notizi gabe
gorputza jartzen danian,
Jaun Jesukristo bizitza letzen,
etsaia aldamenian.

- 3/ Ai zer momentu bildurgarria,
danontzat dagon pausua,
une aretan gure animak
izango du nork jasua:
Kristok zeruan eman nai digu
eternidade osua,
etsaiak berriz aldamenetik
luzaturikan besua.

4/ Pozikan ez du batere emango munduko alegrantziak, negar-malkuak sortuko ditu jazten diguten jantziak; ate zabalik jarriko digu txartela degun ontziak, ordura ezkeroz ez du balio gure alegiñ guziak.

5/ Azken agurra egingo digu torreko kanpai-soñuak, agur munduko txorakeri ta lagun arteko engañuak; Kristo zerura igua degu izkutaturik lañuak, era berian artuko gaitu ildakuaren doñuak.

6/ Burutapen bat jarria daukat dana naigabez betia: uste baño len datorkigula mundu ontatik juatia; etsaien mende geldi ez dedin gure anima maitia, kanpaia deika asi baño len piskat kontura gaitia.

BAKOITZARI BERE IRABAZIA

- 1/ Ari naizela, ari naizela,
ikasi baidet eskola:
nere anima miserabilia
gorputzan mende dagola;
zerbait oztuta jartzen danian
gelditzen zaio odola,
eta animak jarraituko du
leno zijuan bezela.

- 2/ Animak berez eziñ lezake
bide berririk ikasi,
bizi guzian bere gorputza
izan dulako nagusi;
zomorro batzuk menderaturik
juaten zaio igesi,
etsaien mende geldituko zan
Kristok ez balu erosi.

- 3/ Kristok bizia eman baizuen
gure animen aldera,
gorputza iltzian jua gindezke
zeruko aingerun taldera;
bere eroslia maitatu duen
egingo zaio galdera,
onai zerua emango zaie,
txarrai betiko kaldera.

4/ Gure anima espiritu danez
azkenik ez du sekula,
pranko alditan aitortu degu
ori sinisten degula;
bakoitzai bere irabazia
sari emango zaigula,
zeru goietan izan dezagun
Jainkuak lagun deigula.

KRISTO ZERURA

- 1/ Irutasungo misterioan
zerbait kontura gaitian:
Aita-Semiak bi dira eta
Espiritua tartian,
maitetasuna izenik gabe
nola ote ditekian,
iru persona diferentiak
Jaungoiko bakar batian.

- 2/ Irutasuna asiera gabe
betirako da Jainkua,
momentu baten sortzen duena
guztiontzako naikua;
irutatikan bigarrena da
mundura etorritakua,
erakustearren zerun daukala
gure betiko lekua.

- 3/ Izaki batzuk, berak egiñak,
espirituak izatez,
beste batzuek aragizkuak
lurrez egiñak gorputzez;
agindûn kontra altxa ziraden
asperturikan on utsez,
orretxegatik bizia eman zun
ain zan apala biotzez.

- 4/ Irutasungo persona oiek
dute aginte berdiña,
Aitaren naiez Semiak pasa
alain eriotz samiña;
Espirituak agindu zigun
Ama maite atsegiña,
zeru-bidian lagun dezaigun
Andre Maria Birjiña.
- 5/ Azken orduan eman bearko du
bakoitzak bere kontua,
Kristoren antza dadukanari
etzaio esango tontua;
batengandikan bestiengana
tartian bada puntua,
orregatikan deitzen diogu
bati Espiritu Santua.
- 6/ Diabruaren espirtua
munduan dabill airian,
pekatariak eraman nairik
inparnurako birian;
Jainkuan kontra altxa zanian
etzan ortako irian,
botaziua irabazi ta
nai zuen bere parian.

7/ Kristo zerura igo aurretik
egiñ ditzagun otoitzak,
zeren premian arkitutzen dan
jakiñ bear du bakoitzak;
eleizarako borondatia
jotzen badigu ekaitzak,
prutu onikan ez du emango
gure munduko bizitzak.

8/ Eleiza degu, anai maiteok,
sinismenaren azia,
gurutze baten argatik Kristo
eman zun bere bizia;
pekatariok salbatziarren
bere alegiñ guzia,
zeru goietan artu dezagun
emengo irabazia.

9/ Kristok piztuta pasa zituen
berrogei egun munduan,
noizik beiñetan gertatzen zala
apostoluen onduan;
mundu onetan bere ordezeko
aietxek utzi zituan,
ta esaten die Aitarengana
betiko nola dijuan.

- 10/ Gauza askorik esan zizkien
komeni ziran erara,
arrek aotik atera arren
etzuten artu gogora.
«Aiek guztiak ondo ikesteko
etorriko da denpora,
predikatzeraz jungo zerate
zuen erritik kanpora.»
- 11/ Argi ta garbi esanagatik
etzuten ezer ikasi,
aditutako gauza guztiak
juten zizkien igesi;
etorkizunak nola ziraden
etzuten ezer ikusi,
Kristoi bizia kendu ezkeroz
bildurra zuten nagusi.
- 12/ Agintzen zien zerura junda,
andik jakintsu eiteko
Espiritua artutakuan,
beren lanai ekiteko;
gauza bearra uraxen zala
zeruetara juteko,
uste izan arren bestela iñork
etzukiala maiteko.

- 13/ Egunen baten eldu zitzaien
jakindurizko grazia,
argi ta garbi ikusi zuten
aditutako guzia;
orduantxen bai artu zutela
erabaki bat bizia,
mundu guzian ereiteko
Jesukristoren azia.
- 14/ Kristo zerura igo zanian
edertasunez beteta,
zoramenian zeuden artian
laño tartian gordeta,
ostera berriz nun ikusiko
gora begira daude-ta:
«Zertan zaudete onuntz begira
Kristo zerura jun da-ta?»
- 15/ Kristo zerura igo zanetik
ori zan amargarrena,
ikusten zitun nola zeukaten
tristeturikan barrena;
bere dotrina predikatzeko
agiñdu zien aurrena,
pekatariak zeruratzeko
au zala gauzik bearrena.

16/ Espiritua jetxi zitzaien
une artantxen bertatik,
jakinduriaz bete zituen
Jaungoikua zan partetik;
predikatutzen asi ziraden
beren izkuntzan gertutik,
berotasun ark bazirudien
irten zuela surtatik.

17/ Apostoluak utzi zituen
bere ordezko munduan,
pekatariak ikusi dezan
maitetasuna nork duan;
gurutze baten josita ere
anaitzat egin ginduan:
«Gizon, orra or zuretzat Ama
gurutziaren onduan!»

18/ Jesukristoren ordezko danak
gezurrik ez du esango,
bakoitzai bere irabazia
aretxek dio emango;
azken orduan aitzaki ori
ez degu iñork izango,
defensorian bildurrez ura
iñoi etzaio egongo.

SORTZEZ GARBIARI

- 1/ Ia bi milla urte badira
gertaera ura zala,
bertso batzuek jarri nai ditut
ordun banintzan bezela;
komeni bada esplikatzia
Jaunak argitu nazala,
pekatariak salbatziarren
gurutze baten il zala.

- 2/ Agur, Maria, graziz betia
sortu ziñaden unetik,
Jainkua bera gozaten dago
zuri begira zerutik;
neskatxa garbi bedeinkatua,
txukuna zera gogotik,
mendi guztitan agertu naiez
erregutzera gugatik.

- 3/ Aita Jainkuak eskojitua
andre guztien tartian
bere Semian Ama izateko
gizonak diran artian;
etsaien kontra irten zaitezen
gerra dagoen urtian,
betiko erregiña nai zaitu
zeruetako kortian.

4/ Aingeru batek agurtu zuen
otoitz egiten zegola,
Espiritu Santu Jaungoikuaren
esposa bazan bezela,
Jainko-Semian Ama izateko
eskojitua zeukala;
beraren naia egiñ zedilla,
ain zan umill da apala.

5/ Andikan laster itzali ziran
diabruaren sugarrak,
Jaungoikuândik iritxi zitun
bere grazizko indarrak,
etsai guztiak menderaturik
Maria Birjiñ bakarrak,
bere oiñpian zapaldutzeko
sube gezurti zatarrak.

6/ Espirituzko maitetasuna
badijuakio aurrera,
bere garaian agertu zuen
Jainko-Semia lurrera,
gau illun baten arrimaturik
Belen'go estalpe zarrera,
mundu guzian jakiñ zatela
egin zitzaion arrera.

7/ Errege danen errege zala
mundu guziak jakinda,
sortaldetikan etorri ziran
zaldiz birian ekinda;
Erodes berriz nundikan ilko
bere alegiñak eginda,
aurra bizirik gelditu zikon
iñun billatu ezinda.

8/ Bi urtez beko aurrak iltzia
erregiaren aginduz,
erru gabeko inozentia,
ama gaixuak penatuz;
Ama Birjiñak iges egin zun
esoso Josek lagunduz,
Egito'n bizi izateko asmoz
beren lanakiñ sostenduz.

9/ Atzera berriz bueltatzeko
aingeru batek esanda,
lengo Erodes aren semia
orduko errege izanda,
bere lekura iritxi arte
Jose bildurrez egon da,
baña soseguz bizi izan ziran
Nazaret'era juanda.

10/ Aren bizitzak iraun zuen
oge ta amairu urtian,
bere kontrako etsai batzuek
ebaili zitun tartian;
bere azkena izan bear zun
Palestina'ko partian,
esku ta oñak giltzez josirik
gurutze aundi batian.

11/ Ni pekatari izanagatik
zu zera graziz betia,
zure Semian anai naizela
arren gogora zaitia;
zuen merituz esperatzen det
zeruetara juatia,
nere bizitzan eta eriotzan
zaitzadan maite-maitia.

ERNE GABILTZAN

- 1/ Jainkuan Seme Jesukristokin
egĩn ditzadan kontuak,
laguntasuna egingo al dit
nere aingeru santuak,
Jesusen Ama Maria Birjiñak
argiturikan puntuak,
gorputz ta anima banatzerako
eriotzako orduak.

- 2/ Ez jakiñian etorriko da
ordu orren negurria,
bizi guztiok il bearreko
ordena dago jarria;
eiñ bearrian arkitzen gera
salto ikaragarria,
aren ondoren asiko zaigu
beste bizitza berria.

- 3/ Nora saltatu pensaturikan
bizi gaitezen munduan,
inparnu beltza daukagulako
bakoitzak bere onduan;
gorputz argalak ezin ikusi
segurantzia nun duan,
zeru aldera saltatziarren
Jainkuak egiñ ginduan.

4/ Erroma'tikan iritxi zaigu
zerutikako argia,
bataiuakin jarri digute
gure anima garbia;
etsaiak menden artu zulako
Adan da Eban jatorria,
gurutze baten Kristok pasa zun
eriotzako larria.

5/ Etsaia gogor izanagatik
Jainkuak dauka lotuta,
nai utsarekin gauza guztiak
berak egiten ditu-ta;
geronek naita aldegiñ ezik
gu're beriak gaituta,
etsaiari iges egiñ deiogun
nundik dabillen zaituta.

6/ Etsaiak mundun korritutzeko
ez dauka bide jakiña,
nundik dabillen ezagutzeko
ikasi zagun dotriña;
Jesukristori jarraitutzeko
au degu arma bikaña,
etsai-bildurrik ez genduka guk
apostolu onak bagiña.

7/ Andra ta gizon, mutill da neska,
zartxuak eta gaztiak,
eriotz-bildurrez ibilli biar
bizi geraden guztiak,
nun edo nola arrapatuko
azkeneko ordu tristiak;
preparatzeko adierazten du
Kristo zerutik jetxiak.

BAKOITZARI BEREA

- 1/ Bertso batzuek kantatu gabe
eziñ det kendu burutik,
gizon da andra, zar da gazteak,
danak dijuaz mundutik;
gauza txikitik aundi egitera
nola iristen dan mUNETIK,
Adan da Ebak paradisuan
pekatu ein zuten unetik,
destierrora aldegiñ bear
zeukaten zorionetik.

- 2/ Jaungoikozkua izan ezikan
guztiak dute azkena,
izaki danak sortu unetik
bazuten beren izena;
destierro onen bukaeran da
azken epaia esana,
mundu ontan zer irabazi dun
juzgatuko da gizona,
Jesukristo da juez da errege,
guregantikan il zana.

- 3/ Noeren arkan gordetakotan
danak parejak zirala,
aiek esanak bete zituzten
Jaunak agindu bezela;
esan ziteken mundu ontatik
ezertxo palta etzala,
bañan artian zertxobait bazan
jaten gaituna ill ala, (1)
kutxa arretan etzegolako
tapatu zion azala.
- 4/ Lurra da berez serbitzallia
apala eta mansua,
Jainkuak berak gorputz eginda (2)
eman ziona pulsua;
sentidu danak potentziakin,
intelijentzi osua,
eskuak lana egiteko ta
oñak emanaz pausua,
mingaña garbi itzegiteko
ta ez gezurri palsua.
- 5/ Jauna bakarrik ezagutzen da
obligazio gabia,
bera bakarrik izan zalako
gauza guzien jabia;
ura ta lurra pareja da ta
bakoitzak badu beria,
suzko euriak asetakuan
erneko da gorputz guria,
andikan laster esango zaio
nun dun eternidadia.

(1) Lurra alegia, gu danok jango gaituana.

(2) Adanen gorputza egindakoan alegia.

6/ Adan da Ebaren ondorengiak
danok gerade aziak,
lurrak beretzat gordetzen ditu
iltzen diraden guziak;
Jainkuak berak pagatu ditzan
bakoitzan irabaziak,
bi aldetara partiuko gaitu
erregeren justiziak,
onai zerua emango die
Jaungoikuaren graziak.

7/ Bi aldetara partitze ori
dotriñan dago esanda,
nai duan eran bizi izateko
libertadia izanda;
mundu onetan asi ezkerro
nola dagoen demanda,
pake obian egingo digu
beste aldera juanda,
garbitasuna an egingo du
txarrak suari emanda.

8/ Nolako azia ereiten degun
ala landara berria,
berak bestientzat zuenarekin
artuko zaio neurria;
alkarren bistan pasa biarra
egun ikaragarria,
bere gorputza billatutzeko
animak duen larria,
lendik gaiztua izandu zanak
betiko istillu gorria.

9/ Bakoitzak degun gorputz argal au
ereingo degu lurrian,
ondramentuak jarriko zaizka
bizi izan dan errian,
Jaungoikuari erregutuaz
lengo oitura zarrian,
bere anima gerta ez dedin
betiko leku txarrian;
siñismenikan duenarentzat
ara ispillua aurrian.

JESUSEN BIOTZARI

- 1/ Jesusen Biotz maitagarria,
zuri begira naukazu,
sugar orretan pasatakuak
zure mendeko dituzu.
Berotasun orretan
beti zuri zorretan
iduki biar al nazu?
Dizudan zorra ordaindu arte
ortxen kiskali nazazu.

- 2/ Jesusen Biotz maitagarria,
ni zuretzako ar nazu;
zure zaurian gorde-lekua
neri ematen badirazu,
zuk nere biotzian,
sagrario-antzian,
egon-lekua egizu;
zure Aitaren erreinu ortan
bertako egin gaitzazu.

- 3/ Zure Aitaren erreinu ortan
izan gaitezen partian,
alegiñian saia gaitezen
bizi geraden artian;
zure Ama maitia
da zeruko atia,
aingeruk dira tartian;
Aita San Josek lagun deigula
ondo iltzeko suertian.

4/ Ondo illtzeko egon biar du
Jainko-legiei elduta,
azken arnasak ez bitez izan
itxaropena galduta;
lenen iru beretzat,
zazpi projimuantzat,
amar bitara bilduta;
gurutze baten Jesus il zuten
diruen truke salduta.

5/ Famili osua kontatze'itugu
Jesus, Jose ta Maria,
Trinidadeko misteriu
beste iru ere badia;
txikitatik asita
dotriña ikasita
gorde dezagun fedia,
lagun urkua maite izanaz
egiñaz karidadia.

6/ Zeruak ditu amabi ate,
nik ala daukat entzuna,
oietatikan ez da sartuko
garbitasunik eztuna,
sugarretan urtuta
bearbada garbituta
mantxa zikin ô lizuna;
urrezko plaza egin zunian
au da Jainkuak nai zuna.

GORPUTZA TA ANIMA

- 1/ Bizitzan bear diran
gizonaren planak,
Jaunari eskeñiaz
egindako danak,
beretzat ditezela
eguneko lanak,
laguntza egiñ deigula
Jaungoikuaren Amak.

- 2/ Onela egiñikan
goizetik otoitzak,
menderatuko'itugu
etsaiaren gaitzak,
zer premitan dagoen
jakiñik bakoitzak,
nora botako gaitun
munduko bizitzak.

- 3/ Jaungoikuak jarri du
gizona lurrian;
atzetikan bultzaka
juan biarran,
bi bide baditugu
bakoitzak aurrian,
nundik jo pensatzeko
naikua urrian.

4/ Bi bide oiek dira
oso ez-berdiñak,
gaizki ebailtzen gaitu
igarri eziñak;
egiten baditugu
gerok alegiñak,
garbi azaltzen digu
Kristoren dotriñak.

5/ Bat oso zabala da,
bestea estua,
gorputz eta animak
dute apostua;
estutikan asten da
persona justua,
ikusten dualako
Jaunaren eskua.

6/ Gorputz ta anima dira
bide oien maisuak;
kontzientziagandik
artu abisuak,
zuzen izan ditezen
eindako pausuak,
erre nai ez duanak
inparnuko suak.

7/ Pekatuan kastiguz
Jainkuak jarria,
inparnuan omen da
su ikaragarria;
Luziperren bandera
kolore gorria,
pakian kontrarako
mundura ekarria.

8/ Mundu onetan dira
gerra ta pakia,
aukera egiteko
au da parajia;
gorputza ta anima
dira parejia,
gorputzak aukeratuz
nai duen tokia.

9/ Anima du bakoitzak
Jainkuak emanda,
ondo zaitu zagula
Eleizak esanda;
erosi giñutzena,
Jesukristo izan da,
nagusi-ustekua
diabrua zan da.

10/ Gure anima Kristori
ainbeste kostata,
obeto nai digunik
besterik ezta-ta;
iges eiten diogu
beretzat usteta,
Amari biotzian
sarturik ezpata.

11/ Naiz-ta dotriña ikasi
gure memorian,
balantzaka gabiltza
ia erorian;
estrapausoka guaz
zeruko birian,
gorputza ta anima
galtzeko zorian.

12/ Onela ibilli ta
zerura uste juan,
zuzenduko gerala
damututakuan;
Kristo bisitatuaz
maitasun beruan
ez dezagula utzi
gero egitekuan.

13/ Mundu ontako bizitza
penoso ta triste,
pazientzia arren
aituko da laste;
ni illtzen naizenian
kontura zaitetze,
zuekiñ gertauko dala
beste orrenbeste.

14/ Betirako emen ez da
gure izatia,
danori datorkigu
bestera juatia;
gu lotu nairik dabil
etsaiak katia,
Jauna, zabal zaiguzu
zeruko atia.

SALBAZIOKO BIDEA

- 1/ Bertso berriak ateratzeko
arturik pensamentua,
lege zarreko igarletatik
datorren pundamentua;
Eleiza Ama katolikuak
Erroma'n du Aita Santua,
geren animak zeruratzeko
anditxek dago puntua.

- 2/ Illunpe onetan zazpi argi dira,
oietatik sei astiak,
bakoitza bere egintzarekiñ
enpleatuak guztiak;
zazpigarrena Jaungoikuantzat,
norberetzako bestiak,
bear bezela bizi izateko
balio du ikastiak.

- 3/ Egun berri bat gure Jainkuak
argitu digu munduan,
bartko ametsak aztu ditzagun
orixe bear genduan;
gogoratzen naiz bart arratsian
nola illundu ginduan,
famili dana juntatutzeko
danok alkarren onduan.

4/ Oitura ori datorkiguna
gizona izan zanetik,
lanian dana zer esanik ez,
erromeri ta danetik;
gau-piztik ere mogitzen dira
illuntzen duen unetik;
martxa orretan ez dabillena
ez dijua bide onetik.

5/ Izaki danak Jaunak eginda
bera guztien atsegiñ,
bera jabetzat ezagutzeko
guztiei zien otsegiñ;
espirituzko aingeruk ziran
lenen zutenak utsegiñ,
beren antzeko izan zitezen
aiek Ebari itzegiñ.

6/ Adan da Eba paradisuan,
zori oneko baratzen;
aien esana egi ote zan
Eba jarririk zalantzen,
debekautako arbolatikan
fruta jatera juan zan,
paradisotik ateratzeko
motibua au izan zan.

- 7/ Paradisotik destierrora
aserraturik jabia,
beren neke ta izerdiakiñ
jan bear zuten ogia,
oñaze-miñak eta eriotza
ori dudarik gabia,
gerra batian jokatu biar
beren eternidadia.
- 8/ Gizonarentzat denbora izan zun
Jaungoiko errukitsuak,
bide estu ta aldapa gora
naiz eman biar pausuak;
auek dirade pekatuâtik
etorritako kasuak,
nundik ibilli erakusteko
zerutik daude maisuak.
- 9/ Kaiñ da Abel lenen semiak,
Adan da Eba guraso,
Abel zintzua izanagatik
Kain gaiztua zan oso;
mundu onetan egin biarra
amaika ibilli nekoso,
sari eroriz ibilli arren
salbatu leike akaso.

- 10/ Lege zarrian igarle batzuk
bazitun gure Jainkuak,
mundu onetan erakusteko
berak agiñdutakuak;
diabruak ere partia bazun,
orretan ziran kontuak,
zeruan ezin sartu zitezken
egiñagatik santuak.
- 11/ Argatik zuen Aita Jainkuak
neskatxa baten biarra,
mundu ontara etorri zediñ
beraren Seme bakarra;
zeruko atia idikitzeko
bear zalako indarra,
aietatikan irten bear zun
Espirituan sugarra.
- 12/ Itun zarretik lege berrira
kondiziuak aldatu,
Kristo berberak erakutsi zun
anima nola salbatu;
errege danen errege izanda
etzuten errespetatu,
Jainkuan Seme gizon egiña
era orretan tratatu!

- 13/ Jainkuan Seme gizon egiña,
gure anairik zarrena,
Adan da Ebaren pekatutikan
libratu giñun aurrena;
larunbateko eginkizunak
iganderatu urrena,
sakramentuak jarri zizkigun
indartutzeko barrena.
- 14/ Sakramentuak artu beitugu
bizi gerala munduan,
Eleiza Ama katolikuak
ona señale nun duan;
zeruko jabe eiño bagiñan
orixe bear genduan,
beti-betiko izan gaitezen
Jaungoikuaren onduan.
- 15/ Espiritu Santu Jaungoikuagan
izan dezagun fedia,
argi ta garbi erakusten du
salbazioko bidia;
penitentzia egin biar da,
gauza dudarik gabia,
guztien gaindik maite dezagun
Jaunaren majestadia.

16/ Iru persona diferentiak
Jaungoiko bakar batian,
guztia kontra irtenda ere
atsegiñ bete-betian;
gu beregana eraman nairik
guztizko borondatian,
argatik sillak jarri zizkigun
bere paraje maitian.

17/ Silla oietan deskantsatziai
deritzaioгу zerua,
atsegiñ ortan ikus dezala
bakoitzak bere burua;
mundu ontako pasadizua
ez dalako aiñ segurua,
zaindaritzako emana degu
bakoitzak bere aingerua.

PEKATUAREN ZORRA

1/ Jaungoikuari aurka irten zion
aingeru amorruez betiak,
orretxegatik itxi ziraden
zeruetako atiak;
itzez ez dago esplikatzerik
ekarri zitun kaltiak,
mundu guziko ondamendia
obedientzian paltiak.

2/ Guzi-al-duna bera dalako
Jaungoikuaren izena,
lur-zatiakin bere eskutik
atera zuben gizona,
bere mendeko izan zedilla
leiala eta zuzena;
onentzek ere sinistu zion
diabruaren esana.

3/ Jainkuak bazun erabaki bat
onentxegatik artua:
izango zala emakume bat
pekatu gabe sortua;
lenagotandik egiña zeukan
gizonarekiñ tratua:
justua bazan izango zala
zeruetara sartua.

4/ Guziak kontra irten zioten
danak beriak izanik,
esker txarrakin ordaindutzeko
ainbeste ondasun emanik;
bera iltzia sumatu zuen
pazientzian egonik,
gaiztakei ura ordaindutzeko
etzan munduan gizonik.

5/ Aita Jainkuak Semia badu,
bera aña da almenez,
Irutasun bat osatzen dute
espirituz ta gizonez;
bere aurrian auzpeztu biegu
pekatariak geranez,
oker guztiak aitorturikan
barkatutzeko esanez.

6/ Seme Jainkuak gizona danez
guk bezela du gorputza,
Espiritu Santu Jainkuagandik
izandu zuben sorkuntza;
Birjiña Amaren erraietatik
agertua zan onuntza,
salbatutzeko bear degu guk
Ama onentxen laguntza.

7/ Gizadi dana salbatu nai zun
mundu ontara jetxita,
pekatuakin zeruko atia
zegoelako itxita;
irabazita sartu gabiak
etziran oso gutxi ta,
il ondorian Kristok lenengo
oiei ein zien bixita.

8/ Jaungoikuaren aunditasuna
errukiz neurri gabia,
aukeran degu ezker-eskubi
eskojitzeko bidia;
zalantzik gabe erakusten du
zeñetandik dan obia,
Luziperrekin nai badegu ere
badegu libertadia.

9/ Jesukristo da guregatikan
giltzaz josirik il zana:
esku ta oñak gurutzari,
maitetasunez gugana;
pekatûn zorra ordaintzearren
Aita Eternuak emana;
aren orduko suprimentuak
askok alperrik izana.

10/ Ari naizela, ari naizela,
etorri zait bai burura
pekatariak zein bidetatik
juan gindezken zerura:
geren biotzak zuzendu-aziz
Jaunaren lege santura,
maite-damuzko bisitak egin
bera dagoen lekura.

11/ Gure errian Jesus daukagu
Eukaristia donean,
guztiotara zabaldu nairik
txit borondate onean;
erreztasun au izan dezaten
mundu onetan danean,
biotz oneko kristau jatorrak
ari dirade lanean.

I T X A S O A

- 1/ Itxaso urdin zoragarria,
zabala zera benetan,
beti zabuka ikusten zaitut
begirautako danetan;
amaika alargun utzia dezu
gizon galduen penetan,
malkoz arpegik drisdiratuaz
bizi diran egunetan.

- 2/ Suerte ori ekarri die
lanetik bizi bearrak,
bere mendian arrapatuta
zure sententzi gogorrak;
kulpa aundirik ez bazuten e
pasa dituzte ederrak,
ez dira errezak ondo neurtutzen
itxasuaren indarrak.

- 3/ Lurraren etsai amorratua,
beti asarre zabilta,
bartzarreraño juaten zera
ausi biarrez arkaitza;
besteik ezian sortu oi dezu
gizon galgarri ekaitza,
zure kolkora sartu baño len
egiñ diteke otoitza.

- 4/ Gizonarentzat egiña zera eman dezazun sostena, arrazoiakin juaten dira zerbait artzera zugana; orretxegatik egiten zaizu geldikan ezin egona, zuk zeurerikan ezer ez dezu baizik Jainkuak emana.
- 5/ Gizona lurrez egiña da ta zu berriz aren mendeko, ala guztiz e ibiltzen zera ura nundikan kenduko; zure gañera ez lijuazkeke ez balute ezer senduko, (1) alperrik zabilz oiek kontutzen, ez dituzu ondo zainduko.
- 6/ Begira zazu zein prestua dan lurrian dagon arbola: jateko pruta ematen du ta berotutzeko orbela; lurreko gauzen leioldadia ikusi arren orrela, zu or zabilza utzi nai-ezik txitxarrua ta berdela.

(1) senduko = somatuko.

7/ Gaziya eta mikatza zera
gozamenikan gabia,
zeori zerala uste al dezu
arrai guzien jabia?
Lur gañetikan zugana dute
erreka guzik bidia,
zure gaindikan badezu norbait
zu baño askoz obia.

8/ Zure konduta publikatua
ondo dagola jakizu,
lotan dagona erruki gabe
bertan itotzen dakizu;
lur alde ontan bizi geranok
gogo txarreko gaituzu,
alaz guziz e tentatzalliak
zure gañian dituzu.

9/ Arrai gisa du azpitik eta
abanikua gañera,
pauso-lekua eramateko
gizadiaren oñera;
uretarako jantzi politik
arrimaturik soñera,
zure arraiak arrapatzeko
anzuelo-dun kañera.

- 10/ Ontzigilliak bear oi dira
arotzak eta pintore,
egur-itxurak danak kenduta
ipintzen dute dotore,
txiki badira txalupa eta
aundik badira bapore;
argiñak eta igelseruak
ez du balio batere.
- 11/ Gauza guztiak Jaunak egiñak
danak dira ez-berdiñak,
jakia pranko berekiñ badu
itxaso zabal urdiñak;
batzuk badira jan ezindako
eros gogor da gordiñak,
ditun arrairik txikitxorenak
angula eta sardiñak.
- 12/ Europa eta Ameriketa,
Ozeani eta Asia,
Aprika ere nunbait bada ta
ona emen mundu guzia;
itxasoz aruntz pasa bear da
oso biaje luzia,
gizon bateri gerta leikiokke.
danak ezin ikusia.

EGI BATZUEK

- 1/ Egi batzuek berrituzeko
gogotsu daukat barrena,
onetarako laguntasuna
eskatu biet aurrena;
Jesusen Ama, Maria Birjiña,
ez det izango txarrena,
zure Semia gugatik il zan,
gure anairik zarrena.

- 2/ Gizona duen aunditasuna
esplikatzia itz bitan
eziñ dan gauza iruditzen zait,
esango'izutet egitan;
guztien jabe Bera izanik
ezkutatua ogitan,
sinismenian artu biarrez
askok daukate begitan.

- 3/ Gizonak ditun inportantenak
biotza eta mingaña,
oiek santutzen egiñ biegu
almen guziz alegiña;
indarra berriz buruan degu,
ori da gauza jakiña;
txarrari utzi ta onari eldu,
ez izan kasku ariña!

4/ Kristau mingaña izan diteke
aundiz neurrik gabia,
bere gañian nola artzen dun
gauza guztien jabia;
onetxengandik pasatuzen da
biotzagana bidia,
Jesukristoren gorputz egiñik
odola eta ogia.

5/ Ostegun santu apal-garaian
egindako miraria,
bere eskutan bedeinkaturik
ardua eta ogia:
«Auxen dezute nere gorputza
zuentzako janaria,
ixuriko dan odola berriz
kalizako eraria.»

6/ Ixilik eziñ egon niteke
gertaera onen aurrian,
onen antzeko misteriorik
ez da gertatu lurrian;
Jainko-legia bete dutenai
agindutako neurrian,
betiko poza agiñtzen die
Ark testamentu berrian.

7/ Agindu ortatik artu dezagun
sinismenaren azia,
nola Jainkuak ematen duen
agindutako guzia;
ogizko osti txikitxo baten
beraren Seme bizia,
onetatixe aundi egiten da
zeruetako grazia.

8/ Gorputza eta anima biak
batera egiñak betiko,
bere odola erateko ta
gorputza berriz jateko,
erretasunak gañera jarri
zeruetara juateko;
ainbat mesede guri eginda
nola ez degu ba maiteko?

9/ Jesusek zenbat maite gaituen
ondo dago agirian,
begiratzia baño ez dago
saietsan daukan zaurian;
maitetasuna pauso aundia
zeruetako birian,
au igo gabe ezin leike asi
an sartutzeko irian.

10/ Jaungoikuaren tribunalian
pasatu biar lenbizi,
mundu onetan zer egin duen
norberak dezan ikusi;
alper-alperrik ibiltzia da
momentu orren igesi,
orra nik esan aldez aurretik
nai lutekenai ikasi

11/ Nere gogozko ekiñ-aldia
ona nun detan amaitu,
kanpora nai ta irten eziñak
bere kontuak baditu;
gorroto dunik zeruko atian
ezin leikela kabitu,
Jesukristoren esana dala
sarritan degu aditu.

E S K E R R A K

- 1/ Jauna, zuri eskerrak
mesedien alde,
zenbat merezi dedan
egiñ nairik galde;
ainbeste on eginda
zuk neri debalde,
uskeri batengatik
eziñ neike alde.

- 2/ Zurekiñ nai nuke nik,
Jesus Jaungoikua,
anima bat badaukat
beti-betikua;
bere izaera da
zerutikakua,
laguntasunen billa
argatik nijua.

- 3/ Kristo degu errege
zeru ta lurrian,
pekatari galduok
ez gabiltz urrian;
momentu guztietan
bere bearrian,
inparnuko etsaia
degula aurrian.

4/ Bere enpleua du
onek lapurretan,
gizonak engañatuz
beti gezurretan,
alkarrekin jarriaz
iritzi txarretan,
inparnura sartzeko
bere adarretan.

5/ Antxen daduka orrek
bizitza-lekua,
egiñ nai etzulako
agiñdutakua;
aserratu zitzaion
gure Jaungoikua,
bere lagun da guzi
surtara dijua.

6/ Anditxek ematen du
milla tentazio,
grña txarra pranko ta
ainbeste bizio;
gorputzari atsegiñ
ematen bazaio,
bera biurtu leike
desesperazio.

7/ Desesperatuak ez
daduka onikan:
gosez baldin badago
ez du zer janikan,
soseguz egoteko
ez dauka unikan; (1)
ondo eziñ leike bizi
orla dagonikan.

8/ Onelakotxia da
diabruen lana,
onetxen antzekua
egiten dun dana;
artu dezagun bada
pekatuen pena,
damuturik juateko
Jaungoikuagana.

9/ Jainkuaren Semia
gizon egiñikan,
gurutzen ilko zala
ziur jakiñikan
sano gelditu gabe
ezur da zañikan,
arenak berdintzeko
ez dago miñikan.

(1) unikan = unerikan.

10/ Gizonarentzat zuen
mille amorio,
Jetsemani baratzan
odola jario,
Galbario'ko bide
danian dario,
danak ixurtzen ditu
umil da serio.

11/ Bizia emanda're
ez dauka naikua,
bere almen guziaz
Amâna dijua:
ura're guretzat du
agindutakua,
guk gozatziagatik
zeru betikua.

12/ Kristoren ongi-naiak
ez du kaburikan,
konsidera dezake
dunak federikan;
zerurako ez dago
beste biderikan,
ez dezagun maitatu
beste jaberikan.

ARRETAZ BIZI GAITEZEN

1/ Sorbaldan sentitzen det
zerbaiten keja:
urtien nekia;
beste mundura laster
daukat biajia;
ikusi biarra naiz
ango parajia,
oaiñ emen irabazten
ai naizen tokia;
deskansuz lo egiteko
betorkit pakia!

2/ Jaunak sortu niñun ni
bera serbitzeko,
zentzuna argitzeko,
bizia eman zidan
noizbaiten iltzeko;
eskubiderik ez det
nik ori galtzeko,
auxen da motibua
bertsuak jartzeko,
entzumena duanak
nai badu aditzeko.

3/ Anima ta gorputza
ditugu bakoitzak,
munduko bizitzak,
sortzen dizkigutenak
sarritan ekaitzak;
menderatze'ezkero
etsaiaren gaitzak,
sarritan egiñ bear
arretaz otoitzak,
beteko badirade
bataioko itzak.

4/ Zerurako bidia
aiñ degu illuna,
naiz izan eguna,
sinismenez bakarrik
ikusten deguna;
alegiñak egiten
saiatzen zaiguna,
Moisesi itz egiñez,
Jainko gure Jauna,
lege zarra zan arte
gizonen laguna.

5/ Jainkuaren legiak
baditu itz onak
Moisesi emanak,
Sinari'ko mendian
berretan esanak;
amar agindu dira
bete bear diranak,
zintzua izateko
egin biar danak,
ori egiñ-ezian
sekulako penak.

6/ Mesias etorri zan
zerutik mundura,
Moisesen lekura,
bere gaiñ arturikan
gizonen ardura;
apostoluak artu
zitun ingurura,
gu zuzentziagatik
bide segurura;
Ama Birjiñagandik
jαιο zan aur ura.

7/ Aur orren notizia
Juanek emanikan,
jakinda egonikan,
bera bezeiñ aundirik
ez da gizonikan;
arek bataiatzen zun
Jordan'a juanikan,
biriak libratzeko
Jaunak esanikan,
askok etzuen uste
bera etzanikan.

8/ Okultuan zebillen
munduko bizitzan,
azaltzen asi zan
Adanen ondorenak
zeruratu gintzan;
gaiztuak asi ziran
Jaun orren bengantzan:
lenbizi azotatu
zuten enparantzan,
gero esku ta oñetatik
zintzelika dantzan.

9/ Ori gertatu balitz
gaurko egunetan,
aundia benetan;
gerok ikusi-eza
guztiok penetan;
oraingo radio ta
telebisioetan
ez giñake azkena
norbere ustetan...
Ori gertatzen da gaur
eleiza danetan.

10/ Ostiral santu egunez
mendiñ agertua
Jesus zigortua,
burutik oñetara
zauriz gorritua;
gaur meza guztietan
au da berritua,
gure janaritzako
bezperan gertua:
ostian gorputza ta
kalizan ardua.

11/ Arotzaren semetzat
munduak zeukana,
Jangoiko-gizona,
pekatua ordaintzeko
bere Aitak emana;
amorio sutsuan
jetxi zan gugana
guri ematjarren
bere biotz ona,
oraiñ eukaristian
bizirik dagona.

12/ Ara Kristo errege
zeru ta lurrian
guztion aurrian,
eskuak eta oñak
josita egurrian;
gurutzia eramanaz
bere bizkarrian,
bera umill da mantso,
etsaia indarrian;
arnasa artzeko ere
bere biarrian!

13/ Pekatariok arro
giñaden munduan,
Jaunaren onduan,
bera aña bagiñala
usteko genduan;
diabruan mendetik
libratu giñuan,
jatorrizko obena
kenduik bataiuan;
gizonak ez daki asko
zentzuna nun duan.

AURRERAPENA

- 1/ Aurrerapena ikusten eta aurrerapena jakintzan, aurrerapena izketan eta aurrerapena bizitzan, aurrerapena igertzen eta aurrerapena sendatzen; asko gazterik iltzen dira ta ez dakit nola gabiltzan urte askuan bizi nairikan beste norbaitzun bengantzan.

- 2/ Aurrerapena Jainkuan mende Jaungoiko gabe usteta, lengo tamañan geldi liteke milloika asko kostata; gaur egunian batzuk baitugu radiotikan izketa, urrutirako pobretxugarri telebixioz bista ta, Jaungoikuakin kontatu ezkerro eziñ leikenik ezta-ta.

- 3/ Aurreko zarren despreziuan
askoren asmakizunak,
zerbait antoju ematen die
gurasoeri entzunak;
esan diteke gaurko egunian
galdu dirala zentzunak;
atzerritikan ekarri biar
laneko erreztasunak,
zure sabela ez du beteko
bestiak jaten dizunak.
- 4/ Personentzako jan-gai ziraden
len artua ta garia,
Jaunak laguntzen diran ezkeroz
esango'izutet egia:
oiei utzita aстера doia
oraiñ gure probintzia
nola sostendu somatu eziñik
ganaduari bizia,
malamentian enpleatuaz
nork bere irabazia.
- 5/ Zerbait ondotxo artzen dutenak
bizibidia ain lasa,
jan-eranian neurririkan ez,
dibersio ta jolasa;
dotore jantziz paseatzera,
noiznai egiñaz gau-pasa,
bizitzarako aurreratzia
orrela ez da erreza,
zerbait dutenen planta bai baño
gero dotia eskasa.

- 6/ Zenbait gurasok: «Gu bezelaxen gureik ez det nai ikusi»; kolejiora bialtzen dituzte zerbait dezaten ikasi. Gurasuen tatxa azalduta're ez deizkiote itxusi; beren premirik aundienian juten zaizkie igesi, garai bateko arrokeriak besterik etzun merezi.
- 7/ Aurrerapena ekarri leike atzerrira gabe onuntza, bear bezela eskatu ezkerro Jaungoikuari laguntza; nazio ontan ez daukagula komeni ainbat dirutza, sinismen onek galtzen dizkigu anima eta gorputza, eskerrik asko daukagunari Birjiña Amaren laguntza.
- 8/ Lengo batian aditu nuen mutiko baten neurriya: Norteamerika'n jarri dutela ministroren bat berriya, ikustekotan arkitzen dala laster istillu gorriya, neoni orretan jarririk nago, ez dakit leiken egiya: gure erriko barranderotza obe dala alegiya. (1)

(1) Kennedy bi anai eta Luther King il ondoren, onela esan omen zuan Azpeiti'ko mutil batek:

- 9/ Komeni zaion ondra emateko
zenbait mediku jatorri,
nundikan asi leikian ere
eziñ diot nik igarri:
biren biotzak zatiturikan
ondo erasteko alkarri;
biotz apal bat txertatuzeko
zenbat jenio zakarri,
neriak ez du bate balio,
neregana ez etorri.
- 10/ Mediku jaunen sozidadiak
baditu nunbait baldintzak,
arrigarriak derizkiogu
entzuten diran egintzak:
begiak eta biotzak ere
beriak ditu bakoitzak,
oiek sanuak aldatutzia
nola ditezken jakintzak...
Deskuidatzen b'aiz artuko dituk
bere ondorengo emaitzak!
- 11/ Dirua degu gaurko egunian
mundu onetan Jainkua,
zerbait ondotxo izanagatik
ez duna asetzen naikua;
alperra eta tunantia're
aren ondoren dijua,
azkarrak berriz laster sentzen du
ura dagoen lekua,
esan diteke kapaz dirala
iñoi mozteko lepua.

Norteamerika'ko presidente edo ministro baño, Az-
peitia'ko barrendero obe.

- 12/ Zerbait iñori gertatutzian
berentzat geiegi dala,
beste batengan zuzenbidia
egiten dute beriala;
orreatikan igertzen zaie
alkarren lagun dirala,
beren bizia sostenitzeko
ikasi zuten eskola,
gaixuak gaizki irten da ere
betetzen dute zakela.
- 13/ Person bakoitzak berekin badu
iru etsairen jabetza,
gerra betian bizi biar da
sarri mendian gabiltza;
mundua eta demoniñua,
aragizkua gorputza,
pekatuâtik paradisotik
biralirikan onuntza,
eskerrik asko Birjiña Amak
eiten diguna laguntza.

ANIMA SALBATZEKO

- 1/ Anima salbatzeko
dauzkagun neurriak,
estadu bakoitzentzat
Jainkuak jarriak;
or daude diferentzi
ikaragarriak,
gaizki ebailltzen gaitu
eziñ igarriak;
ez dira berriak
gose-egarriak,
izerdi larriak,
birtute urriak;
oik dira Adanek sortu
zitun jatorriak.

- 2/ Salbazio-kontuan
asi banaiz asi;
bear ainbat istori
ez nuan ikasi;
sarri ibiltzen nitzan
dotriñen igesi,
pensamenturen batzuk
jarririk nagusi;
orain det ikusi
nola dan itxusi
gaiztuekin nasi,
etsaiak erosi;
Jaunan laguntzik gabe
ezin leike bizi.

3/ Pekatariak izan
lezakean gaitza:
etsaiekin sozio
egiñaz bizitza;
Jainkuaren legiak
lotzen du bakoitza
anima salbatzeko
eitera otoitza;
bataioko itza
bete al bagintza,
Kristoren egintza
ikasten gabiltza,
Jaungoikuari emanaz
merezi dun aintza.

4/ Zazpi urtera arte
dago inozentzian,
bat iltzen baldiñ bada
aingeru-jantzian;
norkberak du seña
ezaurara eltzian:
okerra egiten badu
kezka biotzian;
ori sentitzian
nere iritzian
gaizki bizitzian
illunpe beltzian,
Jesus josirik dago-
lako gurutzian.

5/ Erremeri al baleri
oraiñ damututa,
traje zarra bezela
berriz konponduta;
len egindako mantxak
zerbait zikinduta,
berrituko duela
Jaunak aginduta,
graziz apainduta,
ainbeste egin du ta;
etsaiez gainduta
gorputzak min du ta;
gurutzian josirik
bizia kenduta.

6/ Fede santuko gauzak
danak sinistia,
Eliza Katolikan
dogoan listia;
ez da erreza danak
ondo ikustia,
bear-bearra degu
dotriña ikastia;
dudatan uztia
bat edo bestia,
munduan nastia,
ze gauza tristia!
Kostako da zerua
orla irabaztia.

BIDE BILLA

1/ Bertso berri batzuek
burua soilduta,
iñor geldi ez dediñ
birian galduta,
ipiñi al banitza
Jaunak lagunduta,
Krìsto ill zutelako
Judasek salduta.

2/ Ez al gera izango
aien antzekuak,
asko egonagatik
gero ontzekuak,
batzuk badira ere
alkar galtzekuak,
konturatuko al gera
gañerontzekuak.

3/ Gizonaren bizitza
geroz laburrago,
Jainkuaren bildurra
ainbat bearrago;
zenbat luziago ta
biotz gogorrago,
zerurako bidia
ordun da okerrago.

4/ Len berreun urte-ta
pasatzen munduan,
orain zarrentxoren bat
jarri aien onduan...
Jaunak beretzat naita
danok ein ginduan,
gero apartatuko du
beria nor duan.

5/ Ezagutuko gaitu
geren egitetan,
aurrera jarraitzeko
nork bere bidetan,
saria emateko
geren tokietan:
batzuei atsegiñez,
bestiei penetan.

6/ Onela izango da
gure justizia,
gero artuko degu
oaiñ irabazia;
iltzera dadukanak
Jaunaren grazia,
zerura sartuko da
anima bizia.

7/ Gizonak sinisten du
gezur biribilla:
zerua irabazten
ez dala ain zalla.
Etsaia nola ez da
izango abilla?
Nunai sartzen da ura
animaren billa.

8/ Billatzen duanian
lazua jartzeko,
zinta luze bat dâbill
nun-naitik eltzeko;
illuntasuna eman
birian galtzeko,
Jainkuaren grazian
beñere ez sartzeko.

9/ Norberak eiñ bezaio
animari kaso,
premietan biotza
gora deigun jaso;
emen izanagatik
lasai ta eroso,
beste biaje ori
luzia da oso.

10/ Biaje ortatik iñork
eziñ leike alde,
nundik nora leikian
egiñ biar galde;
ori ondo dakitenak
ia alde-alde,
erakutsi nairikan
dauzkagu debalde.

11/ Bi ibil-bidetatik
degu asiera,
norberak aukeratu
bere biziera:
estu samar batetik,
lasaitxo bestera,
beste mundura orduko
aldrebes osterera.

12/ Munduan korritzeko
batetik bestera,
gaztetan beartuaz
eskola ikastera,
allegatuko gera
ori ikustera:
kolore danekuak
batian nastera.

- 13/ Nasketa orretatik
nai leiken prutua,
uste erabaki bat
benetan artua:
Luziperren bandera
oso baztertua,
Eleiza Katolikan
danok alkartua.
- 14/ Asmo ederra eta
bikaña benetan,
aurrera jarraitzeko
norbere lanetan,
probetxu izateko
eindako danetan;
arrisku aundiak daude
gaurko egunetan.
- 15/ Libertade aundiak
oraiñ egonikan,
beraka egiten degu
erraz izanikan;
beian inparnu dala
dago esanikan,
goraka egiteko
ez degu indarrikan.

16/ Goraka egiteko
laguntza biarra:
gurutzia ta giltzak
daukate indarra;
oiek ekarri diote
Amari negarra,
zintzelika jarririk,
ai, Seme bakarra.

17/ Guregantikan dago
Birjiña negarrez
gurutzian onduan
ler egiñ bearrez;
asko ari zaizkio
isekaz ta parrez;
kristau ez balirake
oraindik ezerr ez.

18/ Azkenera danian
munduko bizitza,
Ama, salba nazazu
egiñaz otoitza,
ori eskatutzia
ez da bada gaitza,
portuna ona izateko
arrixkun gabiltza.

19/ Au esango dizutet
azken-azkenian:
Aita-guretxo bana
nere izenian,
pausua izan dedin
bide zuzenian,
juzgatu ta aurrera
asten naizenian.

20/ Nekatuta bagaude
deskansa gaitian
Juez Jaunaren ordena
aditu artian;
len eginda bagaude
neurriak betian,
zerun sartuko gera
egunen batian.

GAURKO MUNDUA

- 1/ Bertso batzuek jarri nai ditut
oitura zarrai elduta,
gure euskera geldi ez dedin
indar guziak aulduta;
alimentuan paltaz dirudi
osasuna iya galduta,
mundu guziko notizi danak
periodikura bilduta,
esna gaitezen jarri baño len
komunistari salduta.

- 2/ Gure esperantza izan oi gendun
Eleiza Amaren graziyan,
ongarri dana enpleatuaz
euskaldunaren aziyan,
gure izkuntza utzi nai ezik
beste batzukiñ nasiyan,
beraren ama izango zala
uste izanaz Asiya'n;
oaiñ sinismena ipintzen degu
aditutako guziyan.

- 3/ Illunez argi egiten duen
parol bat degu airian,
oaiñ urte batzuk asi ziraden
ara juateko irian;
uste baño're ugariago
eragozpenak birian;
ori sarritan nola ikusten dun
bakoitzak bere parian,
ura nundikan arrapatuko
ler egiteko zorian.

4/ Zerbait ikasten aritua naiz
gaztez, sasoiz ta zartuta,
beti ikasten bearko degu
buruan eziñ sartuta;
papeletikan balio gutxi
bista zerbait laburtuta;
bestên esana entzuteko're
belarritikan gortuta,
bonbaren batek noiz joko nago
illargitikan lertuta.

5/ Nun edo nola bizi ote naizen
bildurrez nago jarrita,
nere denporan ez det ikusi
ainbat istillu gorri ta;
izan ere gaur munduan bada
ainbat ikaragarri ta,
bertso berriak bear omen dira
puntuak ondo neurrita,
naiago nuen bizi baziran
Udarregi ta Txirrita.

6/ Rusia eta Amerika-ta
munduan aundi-naikuak,
aurrerapena duten ustian
bajatutzeko goikuak;
zerbait ondotxo izanagatik
ez ditu aseko naikuak,
Jaunak egiñak izanagatik
ez dira ezertan bekuak,
zerua ere bêntzat bakarrik
utziko balu Jainkuak.

- 7/ Aurrerapena munduan beti
izan diteke pozgarri,
misteriorik arrigarrina
Jesusek digu ekarri;
gizadi dana salbatutzeko
bazuan ainbat egarri,
zeru-bidian zuzen juateko
lagun deiogun alkarri,
okerrekotik beñ juañkan
eziñ diteke etorri.
- 8/ Iñoiz zerutar bat edo beste
jarri oi degu giari,
deseo ditugun gauzaren batzuk
señalatuaz berari;
bizitzarako ondasunetan
izan ditzagun ugari,
bear bezela eskatu ezker
eskun degula diruri,
gauza guztiak beriak ditun
Jaungoiko gure Jaunari.
- 9/ Diabruaren astuzietan
distraituta ez jarri,
orrelakuak gauza onikan
sekulan ez du ekarri;
pekatariak etsai-bidiak
jarri oi dizka alkarri,
zer datorkigun momentu baten
eziñ zaiola igarri,
gorrotua ta ikusi-eziña
gure animen galgarri.

ANIMEN EGUNA

- 1/ Azaroaren bia
animen eguna,
kristau katolikuak
ospatzen deguna,
erregu egiteko
eskatzen zaiguna;
guzaz erruki zaitez,
Jainko gure Jauna!

- 2/ Otoitz egiteko ere
nago nekatua,
aiñ astuna izanik
gure pekatua;
gogoratzen zait Jesus
gurutz-iltzatua,
arkitzen naizelako
gutziz damutua.

- 3/ Oraintxen balitzake,
ai, nere azkena,
eramango nuke nik
pekatuen pena;
gogoratuagatik
aitortu nuena,
ez dakit izan nuen
beren barkamena.

4/ Ill aurretikan, Jauna,
barka zaizkidatzu,
mundura etorri ziñan
alain errukitsu;
aberastu zenitun
ainbeste beartsu,
errukarri ziranak
orain zoriontsu.

5/ Aldaketa onen berri
noa ematera,
kristautasuna zer dan
kontuak atera:
iritxi ziradenak
santu izatera,
orain bizi dirade
Berakiñ batera.

6/ Eliza katolika
guztion gorputza,
zerutik lurreraño
dagoen on utsa;
biziak badezake
illaren laguntza,
argatik eskatze'ute
animak onuntza.

7/ Etsaiak kendurikan
Kristori bizia,
au izan zan munduan
kristauen azia;
alperrik egiñ zuten
alegiñ guzia,
arrek egingo die
berai justizia.

8/ Berriz piztu zanian
illetara jetxi,
bestela ezin zitezken
zerura iritxi;
zorrarekiñ zeudenak
garbitokiñ utzi,
argatikan nola zan
zeruko atia itxi.

9/ Kristoren señalia
oso da ezagun,
premian dagoena
erruki dezagun;
animak eske daude
beti gau ta egun,
suprimentu artatik
atera ditzagun.

10/ Negarrez urtzen daude
anima gaixuak,
goguan dituztela
munduko pausuak;
zeruetara begira
zabalduek besuak,
noiz izango ote diran
aruntza jasuek.

11/ Kristoren señaiaz
sellutua danik,
etsaiak ezin leike
mendera gizonik;
bere borondatia
ala ez izanik,
argatik dago Kristo
bizia emanik.

12/ Bere naia egiteko
bada libertade,
bañan beste munduan
bi leku dirade,
beti-betirakuak
dudarikan gabe;
orain kontuk atera
zeñetan dan obe.

13/ Zerua ta inparnua
bi izen diferente,
bildurrik ez danian
guziz baliente;
pekatuaren gaitza
dala mediante,
arnasa bakanduta
buruko illak tente.

14/ Bukatu dira noski
pruebarako egunak,
anima salbatzeko
izan ditugunak;
zer probetxu eman dun
gure osasunak,
azalduko du argiro
Jainko gure Jaunak.

15/ Mundutar izan arren
bizitzan luzaro,
pekatuk barka leizke
damutu ezkeror;
Jaunari entregatuz
anima osoro,
zerun izango gera
gozoro-gozoro.

KRISTAU IKASBIDEA

- 1/ Bertso berriak ateratzeko
artu det pensamentua,
esamiñatuz nola dabilen
nere entendimentua,
kristau ikasbidia
zabaltzeko idia
arturik pundamentua,
Paulo seigarren nola daukagun
oraingo Aita Santua.

- 2/ Kristauak ditun jakin bearrak
fede santuko egiyak,
Aita gure ta beste otoitzak
komeni diran guziyak,
Jainkuaren legiak,
salbazioko bidiak,
Eleizarekin nasiyak,
Jesukristoren señale edo
birtute eta graziyak.

- 3/ Aita guria, zerun zaudena,
—biotza gora altxatuz—
santipikatu zure izena,
zure erreñua eskatuz;
zure borondate ona
zerun bezela dana
aiek bezela kunplituz,
zerun bezela lurrian ere
Jainkua ondo serbituz.
- 4/ Eman iguzu gaurtik gure
eguneroko ogia,
gure gorputzak bizi izateko
bear du, ba, janaria;
gure zorrak barkatu
geok nola portatu;
tentazioko eroria
eta gaitzetik apartatzeko,
au da gure eskaria.
- 5/ Jainkua maiten, aotan ez artu,
santipikatu jaietan,
gurasok aintzat, iñor ill gabe,
garbi aragikeriyetan;
ez egiñ lapurretan,
ez itzein gezurretan
sekreto dauden gaietan;
besten emazte ta iñôn gauzik ez,
len itzein det oietan.

- 6/ Jaunan aginduk ondo eiteko
Eliza degu bearrena
nola ein bear dan erakusteko
Jesus izan zan aurrena;
Pedro bere ordeko,
Eliza nola gordeko,
oñarririk ederrena,
erori gabe konserba zediñ
Erroma'n jarri zubena.
- 7/ Eliza Amaren aginduetan
bost auek dira nagusik:
jai-egunetan meza entzun bear
beste egunetan al ezik;
urtian beiñ aitortu,
Pazkoan Jauna artu,
amarrena ô berezik,
barauak ere ein bear dira
aragi uztiak ez-ezik.
- 8/ Artu bearrak baditugu guk,
dirade Kristok egiñak,
lenengo bostak bearturikan
egitera alegiñak:
bataiatu, sendotu,
aitortu, Jauna artu,
azken igurtziko miñak;
apaizkintza ta ezkontza aukeran
erakusten du dotriñak.

- 9/ Mundu ontara etorri giñan
ondameneko zorian
berealatik jarri ginduzten
salbazioko bidian;
orain degu aukera
batera edo bestera,
estaziuak parian;
Jaunak gizona etzuen egiñ
besterezako irian.
- 10/ Jaunak gizona beretzat einda
diabru txarra nagusi,
orregatikan ikusten da gaur
aiñbat egintza itxusi,
ez-jakiñ papelian
lasai bizi nayian
gabiltzalako igesi;
Jesukristoren dotriña or dago
nai degunian ikasi.
- 11/ Jesukristoren ordezeko eta
gañera aren ministruak
alde guzitan ikusten dira
leialak eta prestuak;
otoitza dala bie (1)
indarra ematen die
Jaungoikuaren eskuak,
Euskalerrian baditugu guk
izlari bikain askuak.

(1) bie = bide.

12/ Berak leturik ez dakitenak
oietatikan ikasi,
komentatuko dirala eta
ez ibilli iñor igesi,
dotore dan ustian
or denbora guztian
baldiñ bada ere bizi;
Euskalerrian era ortara
ematen du txit itxusi.

13/ Salbazioko erreztasunak
guziontzako izanik,
damuturikan aitortutzeko
Eleizak gauzka esanik;
oben nekia artzeko,
beriala barkatzeko
aitorle jaunak emanik,
ori orrela ez egitekoz
ez daukagula gauz onik.

14/ Pekatariak altxa dezagun
Jesusengana biotza,
oso-osorik berari eman
gure munduko bizitza;
guregatikan nola
ixuri zun odola,
pasio ta eriotza,
oni zorretan gelditzezkero
alper-alperrik gabiltza.

- 15/ Biyotzetikan barkaziua
Jesukristori eskatu,
deabruaren mende giñan da
berak baigaitu askatu;
geroztikan bizitzan
trabaturik gabiltzan
lazo guztiyak puskatu
nai baditugu, biar gerade
Dimas bezela prestatu.
- 16/ Jesukristo da guregaitan
giltzaz josirik il zana,
esku ta oñak zulatuta're
maitetasunez gugana;
pekatua ordaiñtzeko
gizona salbatzeko
Aita Eternuak emana,
aren orduko suprimetua
askok alperrik izana.
- 17/ Ama Birjiña negarrez dago
gurutzaren oñetan,
bere Semia kulparik gabe
il diotenaren penetan;
gure Ama izanda
gurutzetik emanda,
penagarriya benetan;
bizirik nola iraun zendun zuk,
Ama, tamaña onetan?

- 18/ Zure Semia illeraziak
ni eta nere lagunak,
asko gerade mundu onetan
pekatu egiñ degunak;
ala ere salbatu
danok egin nai gaitu
Jesukristo gure Jaunak,
bera serbitzen pasa ditzagun
mundu onetako egunak.
- 19/ Pake gozuan zerun zaudeten
santu ta santa egiñak,
eziñ geiagoz maite zaituzte
Jesus ta Ama Birjiñak;
orko poz-atsegiñak
neuk iduki eziñak,
atsekabe txit samiñak,
egunen baten eramango al nau
Eleiz Amaren dotriñak.
- 20/ Nere denporan aritua naiz
al dedan eran lanian,
neu ta bestiak salbatzearren
txit borondate onian;
ni iltzen naizenian
parte eman zuzenian
Jainkuaren izenian;
papel onikan etzazue gorde
txoko illun lizunian.

KIZKITZA'KO AMARI

- 1/ Bertsoak ipintzeko
alai det barrena,
Kizkitza'ko Andre Mari
goratuz aurrena;
ortarako laguntza
berak dakarrena,
euskaldunen artian
izanik zarrena.

- 2/ Lau mendiren artean
Itxaso'n argia:
Ernio, Aralar da
Aitzgorri ta Urbia;
Jainko-graziz beterik
birtute garbia,
lañoren itzal gabe
beti ozgarbia.

- 3/ Gipuzko probintziak
duen Goierria'n,
Kizkitza mendiaren
goiko tontorrian,
etziñan ikaratu
leku bakarrian,
San Migel aingerua
egonik aurrian.

4/ Jainkuak ala naita
Itxaso du izena,
ez galtzeko eman zigun
giari zuzena,
pekatuan mendetik
kentzeko gizona,
ikusirik askotan
gaizki gabiltzana.

5/ Jaungoikuaren Ama
mundura etorrira,
guri begira zaude
mendian jarrita;
galduko ote geran
bildurrez larri-ta,
zure laguntza bear
gera gu sarrita,

6/ Aitan alaba zera,
donzella argiya,
Jesukristoren Ama,
Birjiña garbiya,
Joseren esposatzat
mundura etorriya,
Dabidena izanik
bere jatorriya.

7/ Oso zabaldua da
Birjiña orren fama,
pekatu-kutsu gabe
Jesukriston Ama;
garbitasun-ispillu
izan zeran dama,
guraso izanikan
Juakiñ eta Ana.

8/ Milla urte onetan
zaudena Kizkitza'n,
zuk nai dezun bezela
ez dakit gabilzan;
esperantza badegu
eiñdako otoitzan,
aingeru zaindaria
seguratu gaitzan.

9/ Pekatuan ondoren
au da desgrazia:
orretzek kentzen dio
animai bizia;
bizitzaren ondoren
dator justizia,
baldiñ galtzen badegu
Jaunaren grazia.

- 10/ Anima illtzen badu
gorputzen plakezak,
ori ekarri lezake
federikan-ezak;
aukeratu zenitun
leku aldrebesak,
indar artu dezaten
zure erromesak.
- 11/ Kizkitza'ko Amari
eiñ nairik bisita,
iritxi ezin diranei
gogotsu etsita,
nor ez da kupituko
ori ikusita?
Laguntza gabe ez utzi,
ez du merezi-ta.
- 12/ Anaiok, entzun zazue
nere abisua:
limosna paltaz dago
bide nekosua;
aldapa gora eziñ
emana pausua,
erromes gutxirena
ori da kasua.

13/ Kizkitza'ko Andre Mari,
gugatik erregu,
zu ona izanaren
bearra badegu;
emendikan aurrera
maiteko zaitugu,
zure laguntasuna
galtzen ez bazaigu.

14/ Amalau bertsokeiñ
au da errematia,
gure mendian zauden
Birjiña maitia;
zure eskutan daukazu
zeruko atia,
nere eriotz-orduan
etorri zaitia!

GAZTE ANDARIÑAK

1/ Ikusi izan dira
gazte andariñak,
gorputzez lirañak,
oñak azkarrak baña
burutik ariñak,
aprobetxatu nairik
pesta atsegiñak,
naigabetzen ditunak
ura utsegiñak,
gabeko illunpetan
nai duten sorgiñak.

2/ Pestara juten dira
illunabarrian,
—garai ederrian!—
norbere etxietan
egon biarrian;
libertade-aizia
dabill indarrian,
kabitu eziñikan
bear dan neurrian;
lengo oitura zarra
ez dago urrian!

3/ Igo nayian dabiltz
goienen mallara:
polsa eta kollara,
pintatzen gastatuta
pezeta-sallara;
kanpoko errietan
eiteko billera,
aisa igotzen dute
motorren sillara;
bizi-modua asteko
au al da ibillera?

4/ Udaran juaten dira
itxaso-ertzera
bañuak artzera,
erdi narru gorrian
seguak urtzera,
disgustoren batzuek
etxera ekartzera;
iristen badirade
ezagueran sartzera,
akordatuko dira
munduan zartzera.

5/ Gizon da emakume,
zar eta gaztiak,
kolore guztiak,
ez ditu ikaratzen
botellak ustiak;
norbera baño obeto
ote'iran bestiak,
orrek ekartzen ditu
ez-bear tristiak,
pazientzi galtze ta
burutik nastiak.

6/ Mundun ibilli arren
jakintsu ta abilla
aurrerapen billa,
elizatik igesi
ura dek mutilla!
Maiz bisitatu arren
zineko takilla,
ez baldin b'aiz izaten
fededun sotilla,
ortik ez dek ikusko
zerun dekan silla.

AZKEN EGUNA

- 1/ Gizonaren azkena
bere baliuan
garbi ikus diteke
ebanjeluan:
zer dagon idatzirik
Jaunan liburuan,
bakoitzak gorde dezan
nork bere buruan.

- 2/ Iristen zaionian
azkeneko ordua,
aitortu gabe igual
pekatu-mordua;
tentaziuak jartzen
deabru lerdua,
aprobetxa ez ditzan
ogia ta ardua.

- 3/ Jainkuaren grazia
artu biarrian,
inparnuko etsaia
dauka indarrian,
eragozpenak jartzen
jarririk aurrian,
aitortza ona eiteko
estadu txarrian.

4/ Lenbiziko epaia
illtzen geranian;
zeru goitik lurrera
etortzen danian,
guztion Erregea
azken egunian,
zer giñan azaltzera
mundun giñanian.

5/ Guzion bizitzia
bistan idukita,
bestek ez jakitia
ez da eroki-ta;
inparnuko atia nor
berak idukita,
bakoitzari beria
ematen daki-ta.

6/ Inparnuko sarrera
norbere errutik;
animak irtengo du
gorputzen barrutik;
gauza onik ez dator
iritzi arrotik,
Luziper antxen dago
motibo orratik.

7/ Arrotasun ura zan
bera galtzekua,
animaren bizia
azkar illtzekua;
gizona izan diteke
aren antzekua,
pekatari asko da
gero ontzekua.

8/ Aprobetxau nairikan
bizitza lasaia,
lenbizi serbituaz
inparnuko etsaia,
orretarako dala
personen sasoia,
gerorako utziaz
Kristoren apaia.

9/ Etsaiak asko ditu
orla tentatuak,
Jaunak utzi gaitzagun
desanparatuak,
eriotzako orduan
bêtzat kontatuak;
ez gaitezen gelditu
orla tontotuak.

10/ Gizonaren gorputza
izanik argala,
damutasuna biar
pekatu egiñ ala;
aitortza ona egiñ
len-bait-len al dala,
gurutze baten Kristo
gugatik il zala.

11/ Konsidera dezagun
bere eriotza,
gurutzera begira
jasorik biotza;
amari sartutako
ezpata zorrotza,
besoetan arturik
bere seme ill-otza.

12/ Munduko bizitz ontan
gauzik ederrena:
sinismena sartzea
buruan barrena;
Jaungoiko gure Jauna
maitatu aurrena,
zer bidetatik guazen
pensatu urrena.

13/ Probetxu aundiak ditu
Jainkuaren itzak,
zertako enpleatu
pensatu bakoitzak;
onak nai dituanak
eguneko emaitzak,
goizetikan eiñ bear
eske ta otoitzak.

14/ Jaungoikuaren itza
gogoz entzulkan,
etzitan gogoratu
ona nintzanikan;
esperantza badaukat
berak emanikan,
etzaidala sortuko
galtzeko egunikan.

15/ Munduko zori onak
ez dakar gauza onik,
geroko piztuera
betiko izanik;
igarleak daukate
aspaldi esanik
eternidade orrek
ez dula azkenik.

16/ Jesukristok eginda
ainbeste mirari,
Eukaristia degu
guztion janari;
azken ona iristeko
ekiogun lanari,
laguntza eskatuaz
Birjiña Amari.

FEDEA OZTUTA

- 1/ Bertso berri batzuek
laukuan neurtuta,
fedea ikusirik
otzak gogortuta,
mundua salbatzeko
goguan artuta,
ipiñi al banintza
Jaunak indartuta.

- 2/ Pekatariak gabiltz
munduan negarrez,
inparnuko etsaiak
dragatu biarrez;
ezin geike aldegiñ
nork bere indarrez,
gu zeruan sartzea
ez da izango errez.

- 3/ Konturatu gaitezen
len nola gebiltzan,
inparnuko etsaiak
segika zebiltzan,
serbitzen ote giñun
munduko bizitzan,
asemenikan gabe
beti iduki gintzan.

4/ Aita ta ama zerutik
dauzkagu begira,
nora egingo digun
biotzak mugira;
begiratzen badegu
aik daren tokira,
zerurako biriak
ikusiko dira.

5/ Aita Jainkua izanik
guziz almentsua,
bere Semian Ama
ain da indartsua;
onek erakutsirik
nora eman pausua,
probatu ez dezagun
inparnuko sua.

6/ Ez gaitzela asi
su ortan erretzen,
Jaunaren aginduak
saiatu betetzen;
enpeñatzen bagera
gorputza ezitzen,
anima juango zaigu
birtutez azitzen.

7/ Okerrera jotzen du
gorputzaren griñak
gogoratu-ezian
inparnuko miñak;
nola izan litezkean
tormentu aiñ samiñak
agertu nai dizkigu
espiritu piñak.

8/ Jaungoikuaren kontra
beti pekatua,
aren borondatea
utzík baztertua;
orregatikan artu
zion gorrotua,
inparnuko surtara
dauka ondatua.

9/ Pekatuak dauka su
eiteko kemena,
argatik kendu zagun
al dan azkarrena,
aitortza baten bidez
txukundu barrena;
zeruan sartutzeko
au da bearrena.

10/ Pekatu dan neurrian
dago inparnua,
artzen ez baldiñ bada
eindako damua;
berriz ez egiteko
arturik asmua,
aitortza biar dala
esatera nua.

11/ Aurrera ona izateko
asmoa sendotu,
nor bere paltaz iñor
ez dediñ ondatu;
Jaungoikuak eginda
ainbeste mandatu,
erremedio gabe
ez leike sendatu.

12/ Erreztasun au jarri
zuan gure Jaunak,
aprobetxa ditzagun
munduko egunak;
danak aitorturikan
egin ditugunak,
barkatuko al dizkigu
biotz ain bigunak.

13/ Aitortza egiñ biar da
umil eta justu,
ez da ibilli bear
presaka ta estu;
bestek egiñdakorik
ez dezala nastu,
arrokerizko aitortzak
barkamenik eztu.

14/ Ordaña bete bear da
zintzo ta benetan,
ez gaitezen gertatu
betiko penetan,
pagatu al izanda
uskeri onetan;
okerrik aundiña au da
gaurko egunetan.

15/ Onetan bukatzen det
gaurko nere ametsa;
entenditzen duenak
konsidera beza
zerua irabazten
nola dan erreza,
kunplituz bataiuan
eindako promesa.

BITATIK BAT

1/ Bertso batzuek moldaturikan
nere biotza betian,
oar batzuek egiñ nai ditut
gure euskera maitian;
orretarako eskabidia
zeruetako atian,
or zaudetenak lagundu, arren,
Birjiña Amakin batian.

2/ Pensamentu bat bururaturik
zeruan zer berri ote,
gauza berriyak beti ikusten
aspertu gabe diote;
euzkia beziñ dristiratsu ta
asemenia ain bete,
beti-betiko zorionaren
segurentzian zaudete.

3/ Bisita ori orrera eginda
buelaturikan lurrera,
illunpe ontan iruditu zait
leize-zuloko sarrera;
atsekabetan murgill eginda
abiaturik aurrera,
norbaiti antxen entzuten diot:
«Ez ator leku txarrera!»

4/ Pekatariak bizi gerade
ondameneko zorian,
arrisku aundiyak nola baidauden
daramakigun birian;
beti zabuka noiz eroriko,
ibilli biar airian,
deskansatzeko oñarri onik
eziñ tokatu parian.

5/ Oñak ditugu bi bakarrikan,
altuetara gorputza,
gure Jainkuak ala egiña
igo gaitezen goruntza;
orretarako eman nai digu
indarra eta laguntza,
argatik Kristok eraman zuen
Galbario'ko gurutza.

6/ Mundu onetan emen gabiltza
inguraturik olatuz,
diabruaren zirikalditan
gure anima zulatuz;
anima ori barkua danez
aize-bolarak jiratuz
ondo juateko ibilli bear du
bere gorputzak giatuz.

- 7/ Itxas-ontzi orren destinua da
zeruko atsegiñera,
orretarako beartzen gaitu
norbere alegiñera;
naiko indarra eman nai digu,
segurantzia gañera,
alaz guziz e gauza tristea
emendiko aldegiñera.
- 8/ Aldegiñera ori izango da
* momenturen bat tristia,
bere jabiai bueltau bearra
gozatu duen guztia;
gorputzen jabe lurra egiño da,
anima degu bestia,
Jesukristori Galbariuan
bere bizia kostia.
- 9/ Eriotza da lurraren morroi,
artzeko kobratzallia,
lotsarik gabe nun-nai sartzen da
bildurgarrizko jalia;
maltzurkerian eozeiñ lekutan
gizonaren iltzallia,
gorputz guztia ezur da mami
auts egiten dun olia.

10/ Ill ondorian asiko zaigu
gure betiko bizitza,
juez bakarra sententzia bat
nola dagoen bakoitza;
gaizki dagonak entzun dezake
Jaun Jesukristoren itza:
«Lenago zendun naiko denbora,
orain alperrik zabilta!»

11/ Zeru goitikan inparnuera
dagoen diperentziya:
goian santu ta aingeruekin
loretegi bat jantziya;
bestian berriz sua ta garra,
deadar eta antsiya,
beti erre ta kiskaltzen dagon
kondenatuen ontziya.

12/ Ementxen degu bada azkena
batian edo bestian,
bitatik baten biarko degu
gure arnasak uztian;
pisua nora eroriko dan
balantza da ikustian,
era artantxen biarko degu
eternidade guztian.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren.
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak.
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.

32. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotaren bizitza.
33. *M. Elicegui, A. Zavala*: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. *P. Larzabal*: Senpere-n gertatua.
- 35-36. *J. V. de Echagaray*: Festara.
37. *A. Cardaberaz*: Euskeraren berri onak.
38. *S. Salaverria*: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. *Bertsolariak*: Amar urteko bertso-paperak.
- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
42. *Uztapide*: Noizbait.
43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
- 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsularia.
47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
- 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
- 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia.
55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
- 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
- 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
- 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
- 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
- 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak.
- 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.

84. *M. Matxain*: Uste gabea.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria.
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria.
92. *I. Alkain* — *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak.
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka.
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I.
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II.
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.

